



**San Blas jaiak
Idiazabalen**

**Erromeriak
Zerainen**

**Arropa
zaharrak
biltzeko
edukinontziak**

**Aurtzaka
dantza taldeak
25 urte**



g a s t a e z a z u !



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307

 **orkli, s.coop.**



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 80 50 30 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 16 08 23

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

Posta elektronikoa:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aitor Tello, Doltza Barandiaran, Aimar Maiz, Zelai Amenabarro, Aitziber Murua, Ion Muñoz, Iñaki Ugalde, Patxi Telleria, Josetxo Zufiaurre eta Landarlan.

Azaleko argazkia: Lurdes Intxausti.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 7.000 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

*GOIERRITARRAK ez da bere gain hartzen
derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.*



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Arropa zaharrak biltzeko edukinontziak jarri ditu Sasieta

Urtarrilaren amaieran hasi eta otsailaren lehenengo astean, Goierri, arropa zaharrak biltzeko 29 edukinontzi jarriko ditu Sasieta Mankomunitateak. Herri gehienetan edukinontzi bana jarriko da. Beasainen 5 jarriko dira; Lazkaon 2 eta Ordizian 4. Jantzeko era guztietako arropak, mantak, maindireak, kortinak, toailak, oinetakoak, poltsak, gerrikoak, lepokoak, muki-zapiak... bilduko dira bertan. Hori bai, ehungintzako ebakitze-hondakinak, industrian eta tailerretan garbitasun lanetan erabilitako trupuak, alfonbrak, moketak eta garbitasun tresnak ez dira bota behar. Arropak oso zaharrak baldin badira ere edukinontzia sartu ahal izango dira, birziklatzeko balioko baitute. Arropa guztiak poltsa itxietan sartu behar dira edukiontzian.

Oldberri kooperatibak egingo du arroparen bilketa, eta ondoren berrerabilpena eta birziklatzea. Karitaseko Sarea fundazioaren babesean sortutako kooperatiba da Oldberri. Erreterian dagoen berreskuratze planta batera eramango da jasotako arropa. Bertan sailkatu eta erabilpen

ezberdina emango zaie. Batetik, ehunak birziklatzen dituzten handizkiei salduko zaizkie, garbitasunerako trupuak, autoei zuzendutako insonorizazio mantak fabrikatzeko eta altzarrietan betegarri bezala erabiltzeko ehun-aglomeratua egiteko.

Egoera onean dauden arropak, garbitu eta plantxatu egingo dira. Ondoren, pertsona behartsuenei banatuko zaizkie parrokien bitartez, atzeritarrentzako harreara zentroen bidez, pasadizoko jendearentzako zentroen bidez, harrera pisuen bidez, Martuteneko espetxearen bidez eta abar. Bigarren eskuko arropa salmentarako ere bideratuko da bildutako arropa, Merkataritza Justuko dendetan, azoketan eta merkatu txikietan.

Sasieta zerbitzu berri honek lau helburu ditu: zaborren %40a birziklatzea lortzea, Agenda 21 guztietan jasotako Hondakinen Gestio Jasangarriaren printzipioa betetzea, herritarrek bota nahi dituzten arropen berrerabilpena eta birziklatze ahaleginean aurrera egitea eta ingurumenarekiko kontzientzia areagotzea.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Ana Agirre, Industria sailburua

Ana Agirre ataundarra, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailburu berria du. Josu Jon Imazen postua hartu du Agirrek.



Sabino Arana saria Irizarrentzat

Ormaiztegiko Irizar kooperatibak Sabino Arana Fundazioaren Ekonomia saria jaso zuen urtarri-laren 25ean.

Goierri telebista uhin bidez

Goierri Telebistaren lehenengo emisioak kable bidezkoak izan badira ere, urtarri-laren 7az geroztik, uhin bidez ere hasi dira emititzen. Momentuan, Beasainen, Ordizian, Lazkaon, Idiazabalen, Olaberrian, Seguran, Gabirian, Zerainen, Araman, Gaintzan, Altzagan eta Ormaiztegin ikus daiteke, UHFeko 39. kanala sintonizatuta.

Dena den, Goierriko gainerako herrietara iristeko lanean ari dira Goierri Telebis-takoak, itzal guneeetan errepetidoreak jarritz bestea beste.

Goierri Telebistakoek adierazi digutenez, gertatu daiteke, seinalea oso garbia ez izatea edo beste telebista kateren batean arazoak sortzea. Esan, hainbat neurketa egin ondoren Goierri Telebistak ez duela inongo interferentziarik egiten beste kanaletan, beraz, etxeetako anplifikagailu berak 39. kanala ongi ez iragaztea. Eragopen horiek saihesteko, Goierri Telebistak 3 antena instalatzaile ofizialekin hitzarmena sinatu du. Behar bezalako informazioa eta konponbidea emateko jarri harremanetan instala-tzaile hauekin: Ayestaran, 943 883866; Auzmendi, 943881324; eta Electro Oria, 943160533.


Itsasondoko eta Legorretako Gasteizko norabideko tunelak itxita

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretarako Departamentuak urtarri-laren 19an hasi zitun Itsasondo eta Legorretan, Gasteizeranzko norabideko tunelak ber-ritzen. Besteak beste lan hauek egingo dira: euskarriak sendotu, luzerako drainatzea berritu eta zorua sendotzea.

Lanen aurrekontua 2,6 milioi eurokoa da eta lanak egiteko epea, bost hilabete eta erdikoa da. Ekainerako lanak bukatuta egotea aurreikusten du Foru Aldundiak.

Lanak egiteko, tuneletarako sarbideak itxita egongo dira eta horrek trafikoan izango du eraginik. Dena den, erabiltzaileek eragin hori ahalik eta gutxien pairatze-ko moduan antolatzen saiatu dira lanak. Hori dela eta, obrak bi fase izango ditu. Le-henengoan Legorretako tunela berrituko da eta apirilaren 6an amaituko da, Aste San-tuko opor garaia hasieran, hain zuzen. Bigarren fasean Itsasondoko tunela berri-tuko da eta apirilaren 13an hasiko da, ekainaren 25ean amaitzeko. Lanen garaian, Gasteiz-Irun norabideko galtzadatik bideratuko da trafikoa.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Jauregi
TOLDOAK

BEASAIN

943 88 02 43 - 943 88 01 33

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN

lues
rothers
BEASAIN

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 53 Faxa: 943 02 79 39

San Inazio, 5 **BEASAIN**



RENAULT

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea

☎ 943 882 442

☎ 943 888 901

Faxa: 943 888 901

LAZKAO



Goiturren 2004ko egitasmoa

Promozioaren barruan, lau ataletan saiatuko da, 2004. urte honetan ere, Goierriren izena zabaltzen. Batetik, Goierriko gira turistiko berria argitaratuko da, diseinu berriarekin. Aurreko gidetako informazioarekin batera produktu turistiko berriak eta eskualdeko turismo bulegoen erlazioa txertatuko da. Hiru hizkuntzatan kaleratuko da liburuxka: euskaraz, gazteleraz eta katalanez. www.goierri.org web gunea ere eguneratu egin da.

Liburuxkarekin batera, Goierriko mapa turistikoa ere kaleratuko du Goiturrek. Alde batean, Goierriko mapa eta zerbitzu eta alojamenduen zerrenda agertuko da, eta bestean, Goierriko museoak, interpretazio zentroak eta turismo bulegoak.

Azkenik, Zegamako Linue ehungitza tailerrarekin elkarlanean, liburuen orri markagailuak egingo dira www.goierri.org helbidearekin.

Publizitateak ere garrantzia izango du Goiturren lanean. Hainbat telebistetan Goierri buruzko bideoak eskainiko dituzte. Zenbait aldizkarietan ere bai. Kazetarietara iraukorki izango dituzte harremanak Goiturrekoek, batez ere Kataluniako eta Madrilgo kazetarietara.

Turismoaren inguruko azoketan ere izango da Goitur. Urtarrilaren 28tik otsailaren 1era adibidez, Madrilgo Fiturren izan dira eta datorren astean Frantziako Bordelen izango dira.

Goierriko produktuen komertzializazio bidean, erreserben zentral berriak sartuko dira Goierriko alojamenduak. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Sailarekin batera, Europako mendi ibilbideen sarean Goierriko duen partehartzearekin jarraituko dute.

Proiektu turistiko berri ugari daude aurreikusita 2004. urte honetarako. Segurako Ardiarra etxean kokatuko den ertaroko interpretazio zentroa, Ataun San Gregorion eraikitzen ari den Joxemiel Barandiaran interpretazio zentroa, Lazkaoako Infantodoko Dukearen jauregiari buruzko egitasmoa eta Ordiziako Barrenetxe etxea. Goiturren lana izango da proiektu hauei ere jarraipena egitea.



Segurako bolari taldea

Goierriko XVI. bola txapelketa

Otsailean hasiko da Goierriko XVI. bola txapelketa. Goizez eta arratsaldez jokatu dira, 10,30etatik 11,30etara eta 4,30etatik 5,30etara. Apirilaren 3an bukatuko da Gabirian txapelketa. Bitarteko egutegia dugu jarraian: Otsailak 7, Mutiloan; otsailak 14, Olaberrian; otsailak 21, Zerainen; otsailak 28, Idiazabalen; martxoak 13, Legazpiko Murun; martxoak 20, Legazpiko Mauleonen; martxoak 27, Seguran; eta apirilak 3, bukaera, Gabirian.

Gorka Izagirre mundialean

Asteburuan jokatu den munduko ziklo kros txapelketan izango da Gorka Izagirre, jubenil mailan.


Idiazabalgo herri krosa

Urtarrilaren 25ean Idiazabalen jokatu zen XXIV. herri krosean irabazle izan zirenak dituzue jarraian, mailaz maila: **neska alebinak**: Maialen Aseginolaza (Idiazabal); **mutil alebinak**: Jon Aranburu (Idiazabal); **neska infantilak**: Eider Bereziartua (Azpeitia); **mutil infantilak**: Jon Ander Albisu (Beasain); **neska kadeteak**: Cristina Rojas; **mutil kadeteak**: Aitor Aiala (Beasain); **emakumezko helduak**: Amaia Insausti (Olaberria); **gizonezko helduak**: Jose Javier Cuadrado (Zaldibia); **emakumezko beteranoak**: M. Sol Martinez (Irun); **gizonezko beteranoak**: Migel Angel Encina (Legazpi).

Tel. eta Faxa: 943 886 558 Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



zugaztibi@telefonica.net
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behe ORDIZIA

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

txekin

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

Agenda 21: Nolakoa nahi duzu izatea zure herria?

Inork ez du ezagutzen udalerria bertako herritarrek baino hobeto. Horregatik Goierriko 18 udaletan abiarazi den Agenda 21 proiektuan zure partehartzea ezinbestekoa da.

Baina zer da Agenda 21? Udaletxea kudeatu edo gestionatzeko tresna berri bat da eta herritarren bizi kalitatea hobetzea du helburu.

Hiru pauso nagusi bereizten dira

Lehenengo Ingurumen, Gizarte eta Ekonomia arloak aztertzen dituen diagnosi bat egiten da, herriaren gaur egungo egoera ikusteko. Diagnosi honek hobetu beharreko hainbat gai agerian jarriko ditu, eta bigarren pausoa helburuak finkatzea izango da. Azkenik, helburu hauek betetzeko ekintza plan bat zehaztuko da, hau da, finkaturiko helburuak betetzeko eman beharreko pauso edo programak garatuko dira.

Urtero egiten diren ekintza ezberdinek, beren helburuak lortzen dituzten edo ez egiaztatu beharko da, hurrengo urteko ekintza-plan berria erabaki aurretik.

Herritarren parte hartzea

Guzti hau egiteko ezinbestekoa da herriaren iritzia aintzat hartzea; bai herriaren egoeraren diagnosa egiterakoan, bai egin beharreko ekintzak aukeratzeko orduan.



Herritarrek erabakiko dute nolako etorkizuna nahi duten.

Herritar esatean ez da kaleko jendea bakarrik aipatu nahi: udaleko alkate, zinegotzi eta langileek ere parte hartu behar dute; herriko enpresa handi eta txikien arduradunei ere dei egiten zaie; herrian egon daitezkeen kultur elkarte, aisialdi-talde eta beste-lako elkarteek ere parte hartzea komeni da.

Goierriin, herri bakoitzean Tokiko Agenda 21 bat ezartzeaz gain, Eskualdeko Agenda 21a ere martxan jarriko da. Zenbait gaiek (mugikortasuna, hondakinak, osasun sistema, eta abar) eskualde mailako hedapena daukatenez, eskualde mailan aztertu eta tratatu behar baitira.

Gu, gure herri eta eskualdeko garapen jasagarria lortzen saiatuko gara, hau da, gure herritarren bizi-kalitatea hobetzen etorkizuneko belaunaldia kolokan jarri gabe. Honekin, Agenda 21aren helburuan, munduko jasagarritasunean, parte hartuz.

Prozesu berri honetan parte hartu eta informazio gehiago nahi izanez gero, zuzendu Goiekira (Telf. 943 16 15 37).

Goiekiko Agenda 21 Teknikariak

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

JAKIN BEHARRKEOAK (Agenda 21 dela eta)

✓ **Udaltalde 21 – Goierri:** 18 udalerri osatutako lantaldea da eta Tokiko Agenda 21 ezartzea du helburu. Talde lanaren abantailak aprobetxatzen ditu.

✓ **Udalsarea 21:** ekintza plana martxan duten udalerriek osaturiko taldea da; hain zuzen, ekintza plan hauek bultzatu eta dinamizatzekeo sortua.

✓ **Garapen jasagarriaren inguruko informazio gehiago:**

www.ingurumena.net
www.sd-commission.gov.uk
www.cat-sostenible.org
www.esp-sostenible.com
www.iclei.org

✓ **Euskal Herrian dagoneko martxan dauden Agenda 21ei buruzko informazioa:**

www.vitoria-gasteiz.org/cea
www.montejurra.com
www.tolosakoudala.net
www.cryn.info/amurrio

JAKIN BEHARRKEOAK

✓ **Sahel (Sahararen hegoaldeko lurraldea) 1960** geroztik ikaragarritzko lehortea jasan ondoren landaredia berreskuratzen hasi omen da. Lehortek bertako jende asko emigraraztea ekarri zuen. Geratu zirenak lurzoruaren higadura eragozteko teknikak erabiltzen hasi ziren eta orain, zorionez, euria egiten omen du.

✓ **Eltxeko Unibertsitateak** Espainia guztiko **fauna mehatxatuaren kontserbaziorako bankua** jarri du martxan. Animalia mehatxatuak zelula biziak nitrogeno likidotan (-196°C) kontserbatuko dituzte.

"Ahots guztiek lekua izatea du helburu Agenda 21ek, eta partaidetzak garrantzia berezia du prozesu osoan"

Urte osorako ekitaldiak antolatu dituzte

Beasaingo Aurtzaka dantza taldeak

25. urteurrena ospatuko du aurten


Aurtzaka dantza taldeak, izen honekin, 25 urteko beteko ditu 2004. urte honetan. Aurreko Goierri eta Salako Adiskideak taldeen elkartzearen ondorioa izan zen Aurtzaka. Era honetan, joan den mende guztian zehar Beasainen eta Goierri izandako dantza taldeen lekukoa jaso zuen Aurtzakak. Zilarrezko ezteiak ospatzeko, hainbat eta hainbat ospakizun antolatu dituzte urte osorako.

Bitarte luze honetan, asko eta asko izan dira partaideak. Gorabeherak asko, pozak eta bizipenak ere bai. Gaur egun Aurtzaka dantza taldean dabilzanak, urteurren berezi honetaz baliatu nahi dute, "dantza taldeko partaide izan direnekin harremanetan jarri, hainbat ekitaldi prestatu eta guztion laguntzarekin gure inguruko dantza-giroa suspertu, duintasuna aldarrikatu eta urte luzeetan zehar burutu den lan isil bezain handiaren erakikioa agertzeko", diote Aurtzakakoek.

Honetarako, urtebete baino gehiago daramate Aurtzakako urtebeteko egitaraua antolatzen. Ondorengo koadroan duzue prestatu dutenaren berri.

Argazkiak eta hemeroteka

Garai ezberdinetako argazki,



aurtzaka 25 urte

25. urteurrenaren ospakizunetarako egin duten logotipoa.

prentsa idazki edota bestelako gaiak bildu nahi dituzte Aurtzakakoek, osatzen ari diren dokumentu biltegitako.

tuko dituzten gastuei aurre egin ahal izateko, 2.000 euroko bidaia zozketatuko da.

Oroigarri eta salgaiak

Taldearen eta urteurrenaren oroigarri moduan, hainbat gai eskainiko ditu Aurtzakak, nahi duenak eskura ditzan: txapela brodatua, mota desberdineko zapiak, kamisetak eta abar. Hauen berri www.aurtzaka.com webgunean daukazu.

Bestalde, ospakizunek sor-

Ikastaroak

Urteko lehen hilabeteetan, plaza dantzen ikastaroak eskaini nahi ditu Aurtzakak nahi duen guztientzat. Dantza sueltokoak, kontradantzak, larrain-dantza, mutil-dantzak, eta abar izan daitezke. Antolatu ahal izateko, interesa duzuenak jarri lehenbailehen Aurtzakarekin harremanetan (639630064 - info@aurtzaka.com).



Aurtzaka dantza taldearen emanaldi bat

Ekitaldiak

hilabetez hilabete

Apirila bitartean: Plaza dantzen ikastaroak helduentzako eta dantzari ohien entseguak beasaindar dantzarien Alardea prestatzeko.

Martxoak 27: Usurbe Antzokian, Aurtzakako haurren dantza ekitaldi berezia.

Maiatzaren 7tik 16ra: 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' erakusketa Usurbe Antzokiko erakusgelan. Ekainetik abendura bitartean, Igartza jauregian ikusteko aukera izango da.

Maiatzak 16: Beasaindar dantzarien alardea. Aurtzaka dantza taldean eta Beasainen dantzari izan diren guztien jaia. Dantza, bazkaria eta erromeria.

Maiatzak 25: Herri soka-dantza. Sokadantza herrikoi honek ere 25 urte beteko dituenez, modu berezian ospatu nahi da.

Azaroan, Udazken Kulturean: 'Dantza Beasainen, Aurtzaka 25 urte' liburuaren aurkezpena.

Azaroan, Udazken Kulturean: 25. urteurrena ospatzeko Aurtzaka dantza taldeak prestatuko ikuskitun berezia.

Azaroan, Udazken kulturean: Dantza talde gonbidatua ekarriko da urteko ekitaldiei amaiera emateko.

Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eta zeraindarren ekimenez 'Zerain dantza zain': erromeriak berreskuratzea helburu

Zeraingo herria ekimen askotan aitzindaria izan da eta honetan ere horrela da. Erromeriak berreskuratzeke ahalegina egin nahi du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak eta zeraindarrengana hurbildu du proposamena. Zeraindarrei egoki irudituta, urteko egutegia prestatu dute. Guztira 9 erromeria izango dira, igande arratsaldeetan, 6etatik 8etara.

Herriko festa eta ospakizunetan dantzak izan duen sona berreskuratzea da ekimen honen asmo nagusia. Zeraingo herria bere ondarea etengabe berreskuratuz etorkizuna lantzen ari denez eta herri-izaeraren ondare adierazgarria dantza izaki, Zerainek eta Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak antolatu dituzte erromeriak.



Iraileko azoka ekologikoaren eguna erromeriarekin amaitzen dute Zerainen.

"Azken aldi honetan, dantza, herritarrok parte hartuz gozatzeko baino, dantza ikuskizun huts bilakatzeko joera hartzen ari dela iruditzen zaigu. Trikitixarekin berarekin ere antzeko bidea jorratzen ari denaren hausnarketa egin du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak. Bi kezka hauek uztartzearen ondorioa da aurkezten dugun ekimen hau", diote antolatzaileek.

Urte osoan zehar trikitixa

eta dantza lotuz erromeria herrikoia eta parte hartzailea sustatu nahi dute. 2004. urterako bederatzi erromeria antolatu dira. Lehenengoa, igande honetan, otsailaren leian, egingo da, San Blasen aitzakian. Bi orduko saioak izango dira. Lehenengo saioan Joseba Tapia bera izango da musikaren haria eramango duena. Aurrera begira dena den, Goierri bertako trikitilariak arituko dira, Goierriko

Erromerien datak

Otsailak 1
Otsailak 29
Martxoak 28
Apirilak 25
Ekainak 6
Irailak 19
Urriak 24
Azaroak 14
Abenduak 19

Tokia: Zeraingo Elizaren atarian

Ordua: 18:00etatik 20:00etara.

trikitixa eskolakoekin parte hartzea ziurtatu nahi izan baita. Besteak beste, Koldo eta Arantxa Iparragirre, Alaitz Telletxea, Xabier Arakama, Amaia Zubeldia, Daniel Oiarbide eta Ruth arituko dira. Dantza irakasle-sustatzailerak ere izango da: Patxi Perez. Goierriko dantza taldeetako jendeari ere gonbidapen zuzena bideratu nahi zaie.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

IBAI ONDO



ARROZTEGIA

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



✕ LEIHOAK, ATEAK eta abar

✕ ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55



Majori, 12 (Zaldibirako errepidean) 20240 Ordizia
Tel/Fax 943 88 82 32



BADATOR...



Erromeriak galdu zirenekoa

Zerainen erromeria berreskuratzeko asmotan, erromeriak izango dira 9 igande arratsaldetan. Garai batean erromeriak ziren harremanak egiteko gune nagusiak. Soinuaren babesean, sueltoan nahiz lotuan, "pekatu" ugari egindakoak dira bat baino gehiago. Garai bateko erromeria giroa ezagutu nahi izan dugu lerrootan.

Jaietan, goizeko meza nagusiaren eta prozesioaren ondoren izaten ziren erromeriak. Ermiten babesean egiten ziren, herritik urrun, familia, agintari eta apaizaren begitik urrun. Azken honek dena den, laster jakiten zuen egindako dantzen berri.

Festa giroan, edanak eta musikak bultzatuta, bikoteen harremanak erraztu egiten zituen. Izan ere, joan zen mendean, biztanleria oso sakabanatua zegoen. Erromeriari esker, beraz, jai giroa eta parranda, elkar ezagutza eta gazteen arteko harremanak sortzen ziren.

Trikitriak, kale eta herri handietan baino askoz ere onespén handiagoa auzo eta baserrietan lortu zuen. Ia, erromerietan bakarrik entzun zitekeen trikitria.

Ermitak non, erromeriak han

Erromeriek leku jakinak izaten zituzten urtean zehar. Urtean behin, ermita baten bueltan, egin ohi zen erromeria. Goierrin leku askotan egiten zen. Leku batzuk behintzat bildu ditugu: Larraitx, Murumendi, Oiangu, Astigarreta, Garin, Urki, Lierni, Kizkitza,



Abuztuko bigarren igandean, Murumendin erromeria egiten zen. Argazkia 1953. urtekoa da.

Mandubia, Santa Marina... San Pedro eguneko Larraitxko erromeria eta Pentekosteseko Pazko Bigarreneko Astigarretako erromeriak denetan handienak izaten omen ziren. Murumendin, dantzalekua edo tontoplaiza deitzen zitzaion lekua bazen. Josetxo Zufiaurre beasaindarrak adierazi digunez, Liernin sarri-sarri izaten zen erromeria, Beasaingo koadrila batek antolatua, Luziano Zufiaurre soinu-jolea zela.

Soinujoleak

Italiarren bitartez heldu zen trikitria Goierrira eta Euskal Herrira, 1850-60 urteetan. Ormaiztegi-Otzaurre trenbide zatia egiteko hainbat zubi jaso eta tunel zulatu behar zenez, mendiko lan gogor horretan Alpeetan trebatuak ziren bidegile italiarrak ekarri behar izan zituzten. Soinu txikia edo trikitria, 'fisarmónika' italieraz, hartuta heldu ziren italiarrak. Beraz, Goierritik hasi zen zabaltzen triki-

tixa izango zena, eta XX. menderako gure folkloreak ezinbesteko osagarri bilakatu zen.

Soinu jole ugari izan zen Goierrin. Batzuk soinu handia eta beste batzuk soinu txikia jotzen zuten, panderojolea eta zenbaitetan bertsolariak ere lagun zituztela. Goierriko soinu-jole batzuk aipatzearen, Luziano Zufiaurre, Ramon Cereijo eta Zelestino Aranburu beasaindarrak, Patxi Telleria gaintzarra, Norberto Oiarbide idiazabalarra... Kanpotik ere etortzen ziren, Elgeta eta Zumarraga-ko trikitilariak besteak beste.

Erroskila saltzaileak

Erromeriaren bueltan, jana eta edana saltzen zuten. Jatekoaren barruan, erregea, Ordiziako erroskilak izaten ziren. Karkuloren erroskilak. Errifak saldu eta erroskila sortak zozketatzen zituen, gazteen gozamenerako.

Erromeriari esker, jai giroa eta parranda, elkar ezagutza eta gazteen arteko harremanak sortzen ziren.

Neska laguntzak

Neska-mutilen harremanak hasi eta sendotzeko guneak izaten ziren erromeriak. Mutilak ematen zuen lehenengo pausoa. Erromeria amaitutakoan, neska etxera laguntzeko garaia izaten zen, neska laguntza bezala ezagutzen dena. Patxi Telleriak gogoratu duenez, "neskek abemarietako kanpaiak jo aurretik joan behar izaten zuten etxera. Ahal zutenek neska laguntzak egiten ziren orduan. Kanpoko mutilak herriko neskekin joaten baziren, herriko mutilentzat bajeza izaten zenez, kanpoko mutilak etxera zihoazenean harrika eman zieten. Neskak abemarietako kanpaiak jo ondoren etxera iritsiz gero, guraso askok makilarekin jotzen zituzten".

Elizaren eragina

Elizak eragina handia zen oso garai hartan. Eliza Katolikok ez zituen batere gustuko erromeriak. Are gehiago, erromerien aurka bakarrik ez zuten predikatzen, dantza osoaren aurka baizik. Izan ere, bai bazekiten, soinu txikiaren bitartez bikoteek lotuan ere dantza egin zezaketela. 'Infernuko auspoa' izena zerbaitegatik hartu zuen trikitriak.

"Elizaren beldurra handia zen oso", esan digu Patxi Telleriak. "Elizako parrokoak, neskaren bat dantza lotuan ibiltzen zirela jakinez gero, Mariaren alabaren kongregaziotik bota ohi zuen", gogoratu du Telleriak. Bedaio-ko bitxikeria bat kontatu digu Telleriak: "Bedaion ezagutu izan dut, apaizak, abemarietako kanpaiak jotzea kanpandorrera igota. Apaizak gotik errezatuta jendeak plazatik erantzun eta bukatzen zenean, neskak txintxo etxera".



Beasaingo Sagastigoitiko ur depositura urtero egiten zen erromeria. Argazkian, 1919an, Musika Bandarekin joandako beasaindar gazteak.

Beasainen eta Ordizian bandak

Beasainen eta Ordizian musika bandarekin dantza izaten zen igande arratsaldeetan. Herri txikietakoek edo baserritarrek nahiago izaten omen zuten mendi aldeko erromerietara joan. Patxi Telleriak eman dizkigu arrazoiak: “Beasaina eta Ordiziara dotore jantzita joan beharra zegoen, bestela nabarmen gelditzen ziren herrietakoak. Trajea, alkandora berria, korbata, zapata eta galtzerdiak jantzita joan behar izaten zen Beasaina. Garai haietan herrietan ez zen horrelako lujorik eta gustatu ere ez zen egiten. Erromerietara beste era batera joaten ginen jantzita. Zapatila txuriekin, merkeagoak zirelako, eta aldi berean, dotoreagoak”.

Baserritarra izatea izkutatzen saiatzen omen ziren neskak. “Neskak artajorran eta baserriko lanetan burua esta-

lita ibiltzen ziren, ez belzteagatik. Izan ere, kaleko jendea barruan ibiltzen zen lanean eta baserritarrei antzeman egiten zitzaaien aurpegia beltuta eramanez gero. Bestela, “caseras” deitzen zieten kalean eta ez zuten nahi izaten beraiekin dantzarik egitea”, esan digu Telleriak.

Erreginaren onespina

‘Agarratuan’ dantza egiteak sortzen zituen kezak bultzatuta, Beasaingo alkate izan Narziso Crehutek egindakoa gogoratu digu Josetxo Zufiaurre beasaindarra. “Crehuet XX. mendeko 2. alkatea izan zen. Espainiako errege-erreginak Donostiara etortzen zirenean Beasainen egiten zuten geldidunetarikoa batean, baimena eskatu zion alkateak Espainiako erreginari, Beasainen balseoan dantza egiteko”. Parrokoaren iritziaurre aurka, Beasainen hala hasi omen ziren balseoan dantzan egiten.

Gainbehera

Rafael Agirreren ‘Trikitixa’ liburuan agertzen denez, lehen gerrate mundialaren bukaerarekin batera, erromeria ere hiltzen hasi zen. Arrazoi hauek aipatzen ditu: “herrietako jendea hirirantz joaten hasi da, abertzale kontzientziaren pizkundera, erlijio si-

nesmenen ahulezia... faktore guztiek izan zuten eragina horretan. Beraz, erlijio kutsuzko aitzakiaren beharrik gabe, alderdi politikoek eta elkarteek antolatzen zituzten mendi ibilaldiak, euskal jaiak eta bestelako ospakizunak, eta bertan trikitixa zen arima eta funtsezko girotzaila”.

- | | | | | |
|--|--|---|--|--|
| <p>1.-
Gaztetako kontuak nai nituzke esan jendeak jakin dezan gure ibilerea nun nola ta zerzan “sala de fiestas” edo dantza lekuik etzan erromerira joanda egin behar dantzan gure sasoi onena horrela jua zan.</p> | <p>3.-
Neska mutil koadrila pardel eta zato korri eta salto erromerira oñez ez kotxe ta ez moto bertsoa kantatuaz naiz ta egin poto soinu hotsikan bazan dantzarako pronto ordun dibertitzen zan gaur baino hobeto.</p> | <p>5.-
Neskatarra joanda zer egiten genduan paguan onduan esan nuke bainan ez daukat goguan muxu ere pekatu nola zan orduan konfesatzera ere joan berra zeguan gu baino handiagorik ote zan munduan.</p> | <p>7.-
Gero hasitzen ginan paolaren galden ordubiak alden bidek neurtuz etxera luzen da zabalen hotsik atera gabe sartu nai sukalden ta hurrengo egunian jaiki bee lenbailen amonak aikilua dantzatu baino len.</p> | <p>9.-
Kafesniaren partez aitarren pregoia amonak sermoia ni galtzak lokaztuta belauetik goia txapela ere falta kopetan txintxoria badakit zeukatela haiek arrazoiak halere hartu leike orduko sasoiak.</p> |
| <p>2.-
Usurbe, San Gregorio, Kizkitzako gaña da leku apaña Astigarreta, Garin eta Santamaña Loiatik Urkira handik Balerraña denetan erromeri jator da bikaña neska ta ardoa bazan guretzako aña.</p> | <p>4.-
Goizean festara joan da aurrena mezea gainera luzea ardo da erroskila hura zan gauzea bazkaldu ta segitun hasten zen dantzea ta ilunabarrean neska laguntzea txapela galdu eta askotan etxea.</p> | <p>6.-
Neskatatikan bueltan galdurik bidia noizbait afaria ardoz muturra busti kafe ta faria ta orduan edozein da bertsolaria txandarik ezin hartu hura komeria tokitara joan zaigu orduko umoria.</p> | <p>8.-
Goizean jeiki eta ni abarkak jazten nintzanean hasten amona hasiko zan neri amorrazten bart’e ibili alaiz hi lokatza nasten patatak gatzik gabe bazekien uzten errita egitea etzitziaon azten.</p> | <p>10.-
Euskera bakarra zan genduan hizkuntza egiozun bultza naiz galdu erromeri ta neska laguntza gaurko gazteak dabiliz harantz ta honuntza sala zulotan sartu ondatu gorputza hogeit urte hauetan hau da aldakuntza.</p> |

Xabier Zeberio

San Blas jaiak Idiazabalen

Urtarrilak 30, ostirala:

20:00etan: Illati Euskara el-kartearen aurkezpena Pilarreneako Ganbaran.

22:00etan: Txupinazioa eta Axariaren jaitsiera. Jaietako pregoia udaletxeko balkoitik.

23:30etan: Helduen Danborrada Nagusia.

Ondoren goizaldera arte, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.



Argazkia: Tximi???

Urtarrilak 31, larunbata:

13:30ean: Koadrilen arteko bazkariak herriko plazan bertsolari gazteen gonbitearekin.

16:00etan: Gotibehera txapelketa I.G.A.k antolaturik.

17:30ean: Profesionalen arteko eskuzko Pilota Partida Igarondo pilotalekuan.

20:00etan: Txistulari Alardea Zelaako kiroldegian.

22:30ean: Herri kirolak Iga-

rondo pilotalekuan: Idiazabal-Orendain herrien arteko lehia.

24:00etan: Diskofesta Joseina Etxeberriarekin herriko plazan.

Otsailak 1, igandea:

9:30ean: Probintzi arteko bolotxapelketa.

10:30etan: Ordiziako Bandaren kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: Urrezko Aizkora pilotalekuan.

13:00etan: Beti-Arri bandaren kontzertua.

18:30ean: Futbito txapelketako finalak.

23:00etan: 'Gladys Mercado y Mariachis Los Charros' taldearekin dantzaldia herriko plazan.

Otsailak 2, astelehena:

Kandelari eguna.

Umeen eguna:

11:00tatik arratsaldeko **19:00etara**, Zelaako Kiroldegian Gorritiren animaliak eta umeentzako puzgarriak egun guztian zehar.

18:00etan: Herriko Pilotari Gazteen arteko txapelketako finalak Igarondo pilotalekuan.

19:00etan: Meza nagusia eta Kandela bedeinkazioa.

19:00etan: Triki-bertsoteko koloretsua I.G.A.k antolatua.

20:00etan: Ohizko kanpai bueltakoa eta txistularien kalejira.

Ondoren Buruhaundiak eta Tximeleta musika taldea plazan.

IGARONDO PILOTALEKUKO EDARITEGIA

Jaietan ere falta direnak gogoan



© 943 18 77 53

IDIAZABAL

Jai zoriontsuak denoi!



Nagusia, 29 ☎ 843 18 77 37
IDIAZABAL

KLICK ESTANKOAK

festa zoriontsuak opa dizkizue!!!

- Fax publikoa
- Fotokopiak
- Opariak



Tel. / faxa:
943 187 373

ALAI Jatetxea



Jai zoriontsuak!

Etxegarate gaina

☎ 943 18 76 55

IDIAZABAL



ANAIAK GARAJEA

MEKANIKA ETA IBILGAILU KONPONKETA

Guardiko Industrialdea ☎ 943 18 74 83

IDIAZABAL

MUJIKA HARATEGIA

Odolki eta txorizoetan berezitasuna

Kale nagusia, 2

☎ 943 18 71 82

IDIAZABAL

Otsailak 3, asteartea:
San Blas eguna.

Koadrilen eguna:

10:00etan: Txistularien kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia, Parrokiako Koruak abestuta, eta ohizko Erroskila bedein-kazioa.

Ondoren, hamaiketako Apaiz etxean.

12:00etan: Paella prestatzen hasiko dira herriko plazan.

12:00etan: Herriko Txirridulari proba.

14:00etan: Paella jateko aukera, inguratzen den guztia-
rentzat.

Bazkalondorenean koadrila arteko jokoak I.G.A.k antolatuturik

Arratsaldean Iraunkorrak txaranga ibiliko da kaleak alaituz kalejiran.

20:00etan: Buruhaundiak.

22:00etan: herri afaria



Argazkia: Gillermo Urrestarazu

Gau partean Incansables txaranga ibiliko da kaleak alaituz kalejiran.

Otsailak 4, asteazkena:
San Blas Txiki eguna.

Ezkonduen eguna:

11:30ean: Ohizko hamaiketako herriko plazan.

12:00etan: Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Maialen Lujanbio bertsolarien saioa.

Arratsaldean Mujika Jate-txean jarraituko dute Juanito Mendizabal eta Txurdo txiste kontalariak lagun dituztela.

17:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pilotalekuan.

18:30ean: Talo eta sagardo dastaketa herriko plazan.

20:00etan: Buruhaundiak.

18:30etik 21:00etara eta 23:00 1:00era, Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia plazan.

24:00etan: Axariaren igoera eta agurra, datorren urtera arte.

Kultur
Etxean bi
erakusketa

Urtean zehar herriarrek ikastaroetan egindako esku lanak eta Kasongo lunda Gobernuz Kanpoko Erakundearen erakusketa izango dira Kultur Etxean.

Shindegia - Gazategia - Kafetegia

Jai zoriontsuak opa dizuegu!

Xaloo

☎ 943 187 734

IDIAZABAL

IONEKA

Moda

Arropa - Jantzidenda
Konplementuak

Bikuña, 1 ☎ 943 18 75 27 **IDIAZABAL**

PERIKO

ARRANDEGIA

Kale Nagusia, 16
☎ 943 18 71 13
IDIAZABAL



ZEPAI

JATETXEA

☎ 943 18 71 98

IDIAZABAL

M

MUJIKA

jatetxea

Kogote erreak,
txuletak

Nagusia, 46 ☎ 943 18 73 19
IDIAZABAL

AXARI

jantzi denda

Jai zoriontsuak denoi

☎ 943 18 72 84

Nagusia, 15
IDIAZABAL

Herrian euskararen erabilera bultzatu asmoz Illati euskara taldea sortu da Idiazabalen

Urtarrilaren 30ean, iluntzeko 8etan Illati euskara elkarteak jendaurrean aurkeztuko da, Pilarreneako ganbaran. Idiazabalen duela urtebete elkartu eta euskararen alde zerbait egin beharra ikusi zuten herritar talde baten lanaren ondorioa da aurkezpen hau. Hasieratik zeregin horretan ari den Eider Alustizak eman digu beraien asmoen berri.



Eider Alustiza Illati euskara elkartearen kidea.

Nolatan euskara elkarteak Idiazabalen?

Iazko gabonetan, euskararen gaiarekin pixka bat sentsibilizatuta geunden hainbat lagun elkartu eta herrian euskararen alde egingo zuen inongo talderik ez zegoela komentatu genuen. Bilerak egin eta zer egin zitekeen aztertzea pentsatu genuen. 4 lagun elkartu ginen eta herriari begira eztabaida sortzea zen asmoa. Argi genuen talde bat sortzekotan ez zela ghetto bat izan

behar baizik eta ahalik eta zabalena izan behar zela. Horrela, jende konkretu bati propio deitu eta bilera zabalago bat egitea erabaki genuen.

Lehenik herrian euskararekin sentsibilizatuta egon zitezkeen 30 laguneko zerrenda egin genuen. Hauekin banan-banan hitz egin eta bilera batean 22 lagun elkartzeari lortu genuen. Era guztietako jendea zen tartean: Udalean dauden hiru alderdietako ordezkariak, helduak, gaztetxeko-

ak... Hortik hasi eta 2003. urtean zehar 4 bilera nagusi egin ditugu.

Zein izan zen lehen lana?

Lehen bilera horretan Idiazabalen euskarak bizi duen egoeraren diagnosia egin zen. Erabilera, ezagutza, motibazioa eta horrelako parametro batzuk oinarri bezala hartuta euskararen egoeraren azterketa egin genuen. Oso gustura geratu zen jendea bileraren emaitzarekin eta beste bilera

baten beharra azpimarratu zuen jendeak.

Diagnosi horretan zein ondorio nagusitara iritsi zirenen?

Idiazabal herri euskalduna bada, Eustat-en 96ko datuen arabera idiazabaldarren %80-ak baino gehiagok ezagutzen du euskara. Ezagutza izan arren ikusten genuen erabileran herren egiten duela, komertzioan, tabernetan, herriko plazan... erdara asko entzuten da. Baita ere nabaria da jendeak euskaraz irakurtzeko zailtasunak dituela, egunkari salduenak erderazkoak dira.

Honen aurrean zein irtenbide ikusi duzue?

Bigarren bileran egoera zein den ikusita herrian zer egin litekeen ideien bilketa egitea izan zen lan nagusia. Ondoren hirugarren bilera udan zenez, ez zuen arrakasta handiegirik izan. Laugarren bilerara Joxe Mari Muxika Arrasaten bizi den idiazabaldarra, eta Topaguneako lehendakaria ekarri genuen. Egoera zein zen bagenekien, zer egin

San Bas jai zoriontsuak guztioi!

Garbitasunak

OXEPI

607 140 721 ZALDIBIA

943 18 70 68 - 943 18 76 99
K. Nagusia, 20
DIAZABAL

ARANTZAZU
Jai zoriontsuak denoi!
ARRAINDEGIA

943 88 14 13
Juan XXIII., 12
BEASAIN



kutxa

gizarte ekintza

nahi genuen ere bai baina nola egin ez genuen oso argi. Horretarako oso lagungarria izan zen Muxika.

Ikusi zen talde bezala juri-dikoki formaren bat hartu behar zuela, bestela asmo soil batean geratzeko arriskua zegoen. Euskara elkarteak sortzea erabaki zen.

Illati jarri diozue izena. Zer dela eta?

Antonio Berasategiri herriar garai batean erabiltzen ziren eta gaur egun galduta dauden hitzen zerrenda bat egiteko eskatu genion. Horrela, hitz zaharren bat berreskuratu nahi genuen. Dozena bat eskatu eta 30etik gorako zerrenda prestatu zigun. Horietatik Illati aukera genuen. Illatia sutatik gori-gori ateratzen den egur zatia da, mamiari erre zaporea emateko erabiltzen zen.

Nola dago osatua Illati euskara elkarteak?

Elkarte izaerak zuzendaritza batzordea izatea eskatzen duenez, borondatea azaldu zuten 8 lagunetako taldea gaude bertan. Bileretan parte hartu duten gainontzekoak elkarteak bazkide egin dira. Orain bazkide kanpaina martxan jarri nahi dugu ahal den



"Ezagutza izan arren ikusten genuen erabileran herren egiten duela, komertzioan, tabernetan, herriko plazan... erdara asko entzuten da".

jende gehien biltzeko. Urtean 30 euroko kuota jarriko dugu eta jubilatuta eta ikasleentzat 5. Udalak utzitako lokala izango dugu jaietatik aurrera.

San Blas jaian hasieran elkartearen aurkezpen publikoa egingo duzue. Ze asmo edo proiektu duzue hemendik aurrera?

2004. urte honetan helburu nagusi bezala herri aldizkaria sortzea dugu. Hausnarketetan ikusi zen GOIERRITARRAK asko lagundu diola alfabetatu gabeko jendea euskaraz irakurtzeko ohitura hartzen. Jendea aukera gehiago emateko proposa ikusi zen herriko aldizkaria sortzea, bertako berri gehiagorekin. Oraingoz bihi-

labetekaria izango da eta gainera lehenengo alea uste baino lehenago kaleratuko dugu, Sanblasetarako. Aldaize izena izango du eta 16 orrialde izango ditu eta herriko informazioa ekarriko du euskara hutsez.

Onoreen komertzio, udalaxe eta euskara elkartearen arteko elkarlana landu nahi da denda eta tabernetan euskara gehiago erabiltzeko.

Herriarrek nola hartu dute Illati- ren sorrera?

Zenbaitek ez du ulertzen zertarako behar den euskara elkarteak Idiazabalen. Eta egia da herri euskalduna dela gu-

rea, baina erabileran oraindik lan handia dago egiteko. Ezagutzaren datuak %80tik gorako datua ematen badu ere, duela urte pare bat Sei-k egin zuen kale erabileraren neurketaren arabera %65a euskaraz egiten da. Noski ez dagoela herri handiago edo erdal-dun batekin konparatzerik, baina hemen ere badago zeregina. Gure helburua ez da herria euskalduntzea, motibazioa, kontzientziazioa eta erabilera bultzatzea baizik. Nik uste dut lanean ari garen heinean jendeak ulertu eta onartuko duela behar hori.

Horrelako proiektuak aurrera eramateko diru arazoa ere izaten da.

Bai, hasera honetan udalaren laguntza osoa dugu. Lokala utzi digu eta 2004rako dugun aurrekontu osoa bere gain hartu du. Garbi utziaz, hori martxan jartzeko laguntza dela, baina, 2005etik aurrera gure finantziabideak behar izango ditugula.

Guk ere garbi dugu elkar-teak udaletxetik autonomia izan behar duela. Elkarlanean aritu behar gara baina aparte-ko zerbait izan behar da. Dena dela eskertzekoa da hasera honetan udalaren laguntza izatea.



*Jaietan ere
preso eta errefuxiatuak
gogoan*

Etorri zaigu berriro ere
Idiazabala San Blas
Kimuren izenean
denok ondo pasa

XUME TABERNAk

Festa onak opa dizkizue

Nagusia, 5

IDIAZABAL

☎ 943 18 70 35

**Era naturalean elikatutako
oiloen arrautza jarriberriak**

Articola
SAN BLAS
ARRAUTZAK



Atxu etxea, 27

☎ 943 187 458
(oilategikoa)

☎ 943 187 503
(etxekoa)

IDIAZABAL



Berrikuntzak

Urtarrilaren 19an hasi ziren azken aldian hain ezaguna egin den Torrao taberna eta Okindegiaren etxeak suntsitzen. Dagoeneko dena botata dago eta etxe berriak urte eta erdira bukatzea espero da. Lan hauekin batera Arizti Handiko lanak ere laburrean hasiko dira. Lehenik eta behin aldagelak eta grada berrituko dira eta aurrerago zelaia.

Asteburuetan plazako bidea moztuta

Aurrerantzean, asteburuetan plazako bidea moztua izango da kotxeentzako. Aparkalekua irikia izango da eta bertan izango ditu sarrera-irteerak. Larunbata eguadiako 2etatik aurrera itxiko da. Zabaldu berriz, astelehen goizeko 8etatik aurrera.

Aitor Tello

Helduentzako karate ikastaroa

Joxemiel Barandiaran kiroldegian zenbait helduk karate ikastaroa egiteko interesa agertu dute, talde bat osatzeko nahiko pertsona dagoen jakin nahian kiroldegian izenemateko epea ireki da, interesik duten guztiek izen eman dezaten eta talde bat osatzeko modurik dagoen aztertzeke. Hau egin ondoren guztien artean aztertuko litzateke ikastaroaren antolaketa.

Odol ateratzeak

Hilaren 22an izan zen aurtengo lehenengo odol ateratzea. Oraingoan 45 lazkaotarrek eman zuten nahiz eta 146 lagunei luzatu deialdia. Hauez gain 3 berri izan ziren eta beste hainbeste analitikak egiteko. Antolatzaileen aldetik eskertu azaldu ziren denek eta mezua luzatu jende gehiago animatu dedin odola behar baita. Gehienbat jende gazteei zuzendua dago. Hurrengoa martxoaren erdialdean izango da baina zehatzago datorren alean azalduko da.

Ama Lur mendi irteera

Urkiolan eguna pasatu ondoren oraingo honetan Aratz mendia ezagutzeko aukera izango da otsailaren 15ean. Interesatuok elkarte honekin jarri harremanetan edo ikastolarekin bat eginak daudenez bertara ere inguratu zaitezke.

Futbola

Asteburuan jokatu zuten errejionalak Andoainen. Bertako emaitza ontzat hartu daiteke nahiz eta irabazi ez. Lehenaren aurka jokatu zuten eta binako emaitzarekin amaitu zen. Hurrengo jardunaldia etxean izango dute Hondarribiren aurka arratsaldeko 3,30etatik aurrera.


Areto futbola: Hauek ere kanpoan jokatu zuten azpeitiarren aurka. Beraien emaitza binakoa izan zen eta datorren neurketa etxean izango dute Getariko Irizabal taldearen aurka. Neurketa arratsaldeko 5etan izango da.

200. urteurrena

Olaberria Lazkaotik banandu zela, 200 urte betetzen dira aurten. Ospakizun honetarako logotipoa aukeratzeko lehiaketa egin zen joan zen urrian. Belen Parrak irabazi zuen lehiaketa. Irudietan duzuen logotipoa udalaren idatzi guztietan azalduko da. Eta

nola ez, urteko egutegian ere bai.

200. urteurreneko ospakizuna urriaren 15ean izango da eta bien bitartean hainbat ekintza ere egingo dira.



1804 - 2004

Santa Ageda eskea

Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, herrian zehar bi talde arituko dira etxez etxe koplak kantatuz. Arratsaldeko 4ak aldera hasi eta baserri guztiak bukatu arte arituko dira.



Loinazko San Martin eguna

Loinazko San Martin Santua dugu Beasainen zaindari eta hori gogoratzeko asmoz usarioa dugu otsailaren 5a ospatzeara. Bezperan, San Martinen bederatziurrenari bukaera emanez, otsailaren 4ko ilunabarrean, Santa Agedaren ohorezko koplak kantariak ibiliko dira.

Loinazko San Martin eguna Odolki Kofradeentzat ere egun berezia da. Aurten beraien XIX. Biltzar Nagusia ospatuko dute ohiturazko senidetazunezko bazkariarekin amaituz. Loinazko San Martin Plazan, 12:00etan. Bertan, ohorezko kofradeak izendatuko dituzte. Ondoren, urteko bazkaria egingo dute. Aurten, Orioko Kepa Loidiren esku dago, egun honetarako nahikoa odolki prestatzea.

18:00etan, odolki dastatze herrikoia egingo da herriko plaza ezberdinetan.

Aurretik, haurrentzat, Taktolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dira Usurbe antzokian, 16:00etan.

Erretiratuen Etxeko jaiak

12:30ean: luncha bazkideentzat. **18:00etan:** Manuela Esnaola Sarasola andreari eta Florencio Mendia EliceGUI jaunari harrera egingo die lagunarteko omenaldia eskaintzeko asmoz. Aurtzaka euskal dantza taldea, Gurea abesbatza, Patxi Plazaola alkatea eta Imanol Aranburu, Gizarte Ongizateko Batzordeburua izango dira omenaldi honetan. **21:00ak arte:** Dantzaldia Jesus organojolearekin.

Nekane Altuna

Peña Beloki argazki lehiaketa

Beasaingo Peña Belokik antolatutako argazki lehiaketan partaidetza handia izan da 4. edizio honetan ere. Urtetik urtera jende gehiagok hartzen du parte. Iñaki Azanza ordiziararentzat izan zen lehen saria eta baita Joseba edo Gorka Beloki anaiei ateratako argazki onenari ematen zaion sari berezia ere. Aitzgorri Mendizale Elkartean egin zuten sari ematea eta bertan izan ziren Joseba eta Gorka Beloki txirrindulariak ere.

Asmubek antolatutako ikastaroak

Asmube Beasaingo Emakume Elkartetik jakinarazi dutenez, oraindik ere bada aukera otsailerako antolatu dituzten ikastaro desberdinetan izena emateko.

Ordenadore bidezko mekanografia. Asteazken, ostegun eta ostiralean emango dituzte klaseak goizeko 9,15etatik 10,15etara.

Photoshop. Argazkien tratamendua. Asteazken eta ostegunetan emango dituzte klaseak, goizeko 10,30etatik 12etara.

Odol ateraldia

Odol Emaileen Ordezkaritzak jakinarazten du, otsailaren 17an egingo dela odol ateratzea Urbi etxeko lokalean, arratsaldeko 6etatik aurrera. Ohiko emailleez gainera, berriren bat animatzen bada, bertara azal dadila.

Herria estadistiketan

Jaiotza datuak

2003. urtean guztira 130 haur jaio ziren. 64 mutil eta 66 neska. Hau da 2002. urtean baino 20 haur gehiago. Izenei dagokienean berriz, mutilen artean Unai, Xabier, Beñat, Manex, Eneko eta Asier dira gehien errepikatu diren izenak. Nesken artean berriz, Irati, Naia, Uxue, Irene, Maria eta Naroa dira gehien jartzen diren izenak.

Langabezia datuak

Langabetuen kopurua Beasainen 2003ko laugarren hiruhilekoan zehar 312koa izan da, hau da %6,09koa. Gipuzkoan langabetuen kopurua 7,30ekoa izan da.

Euskararen ezagupena Beasainen

2001eko erroldan jaso eta Eustatek landutako Beasaingo euskararen ezagutza-datu orokorrak kontuan hartuta, ondorioak ondorengo hauek dira:

- % 65,25 euskaldunak ziren eta % 34,75 erdaldunak.
- 5 urtetik 24 urtera bitartekoak % 93tik 96rakoak zen euskararen ezagutza.
- 25 urtetik 39ra bitartekoetan, % 80tik % 61era bitartekoa zen euskararen ezagutza. Nabarmenezkoa da, 35 urtetik beherakoetan % 70ez goitikoa dela ezagutza.
- 40 urtetik 60ra bitartekoetan, erdiak baino zertxobait gehiago ziren euskaldunak (% 54,19tik % 50,07ra).
- 60 urtetik 75era bitartekoetan, euskaldunak erdiak baino zertxobait gutxiago ziren (% 45,59, 41,88, 48,79 hurrenez hurren).
- 75 urtetik gorakoak artean, berriz ere euskaldunak erdiak baino gehiago ziren 85tik 89rako multzoan salbu (% 44) eta 90etik gorakoetan askoz ere nabarmenago (% 66,67 eta % 72,73 hurrenez hurren).

Ez da ahaztu behar datu hauek 2001ekoak direla eta jada 2004an gaudela. Beraz, Beasainen une honetan, hirutatik bi euskaldunak dira oro har, ulertzerakoan zifra hori lautatik hiru bihurtzen da, gazteek % 93tik gorako ezagutzak dituzte, 40tik beherako hirutatik bi baino gehiago euskaldunak dira eta multzorik okerrenetan ere erdiak euskalduntzat har daitezke.

Idazlan lehiaketako sariak

Otsailaren 7an, XIV. Beasain idazlan lehiaketako sari banaketa egingo da eguerdiko 12etan, Udaletxeko Batzar Aretoan.

Bertso Afaria

Arrano Kultur Elkartek eta Bertsoaren Beasaingo Lagunak antolatuta, bertso afaria egingo da Arrano Kultur Elkartean otsailaren 7an, gaueko 8,30etan. Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak izango dira bertan. Aurretik tikeak salgai daude Arrano Tabernan. Prezioa 15 Eurokoa izango da.

Aitz-zorrotz Elkarteko bilera

Urtarrilaren 31an egingo dute urteoroko bilera, Aitz-zorrotz, Ehiza eta Arrantza Elkartekoek. Lehenengo deialdia goizeko 10,30etan izango da eta bigarren deialdia berriz 11etan.



Eneko Agirrezabal, Zestoan jaso zuen trofeoarekin.

Gipuzkoako txapeldun krozean

Eneko Agirrezabalek Gipuzkoako kros txapelketan lehengo postua lortu zuen, junior mailan, urtarrilaren 18an, Zestoan. Eneko 1go urteko juniorra da eta 2. urteko juniorrekin eta neska seniorrekin batera korritu zuen Aurrez, Elgoibarko nazioarteko krozean 9. geratu zen (lehen euskalduna). Ordiziako San Silbestrean 3.

Arrateko krozean, 2. eta Irungo krozean ere 2. Urtarrilaren 31n, pistean, 1500eko Euskadiko Txapelketan parte hartuko du eta otsailaren 8an, Zornotzan Euskadiko kros txapelketan.

Zikloturismo taldea

Herrian zikloturismoko taldea sortzeko bilera egingo da, gaur, urtarrilak 30, 19:30ean kultur etxean. 8 herritar asmo hau gauzatu nahirik dabilte. Bileran, asmoak azaltzeaz gain, ateraldiak antolatzeko, Kosta itzulia berrindartzeko eta abarretarako proposamenak egingo dituzte.

Santa Ageda eskeak


Santa Ageda bezperan, otsailaren 4an, arratsaldean, herri eskolako aterako dira kanutu eskera. Elorri Kultur El-

karteoak, koplari eta trikitilariekin iluntzean ibiliko dira kalez kale. Ondoren, afaria izango da elkartearen.

Bola

Martxeliño Agirre. Urtarrilaren 18an, erregularitateko lehen saioa irabazi zuen Hernanin 46 birla jota.

Segurako proba. Urtarrilaren 25ean, erregularitateko 2. proba, Brinkolako Juan Mari Iñurrategik irabazi zuen (51 birla). Jokin Izagirre 3. geratu zen 49 birlarekin. Sailkapenean, lehen bost postuetan hi-



Joxe Migel Aldanondo eta 'Eder' bere ehiz txakurra.

Herriko txapeldun ehizean

Txoritegi elkarteak antolatuta urtarrilaren 18an partzoneriko lurretan jokatu zen herriko ehiz txapelketa Joxe Migel Aldanondok irabazi zuen. Elkartekoek, aurrez, 70 faisana eta eper jaregin zituzten. Ehiztari bakoitzak, bere ehiz txakurra lagun zuela 3 ordutan ahalik eta hegazti gehien ehizatu behar zituen. Joxe Migelek 3 faisana eta 3 eper bota zituen. 2. postua Jose Inazio Insaustik lortu zuen eta 3. Xepeño Agirrek egin zuen. 14 ehiztarik eman zuten izena, baina eguraldi txarra zela eta, 11k parte hartu zuten. Lehen bi sailkatuek, eskualdeko ehiz txapelketan parte hartuko dute Aralarren.

ru herritar daude: 2. Martxeliño Agirre, 4. Antonio Agirre eta 5. Jexux Mari Intxausti. Datorren astean Goierriko txapelketa hasiko dute.

Kirol eskolarra

Idiazabalgo Herri krosa.

Laiotz herri eskolatik 24 neska-mutikok parte hartu zuten. Leire Arrietak 2. egin zuen neska alebinetan. Eneko Montes ere 2. geratu zen mutil kadeteetan.

Tenisa. Urtarrilaren 30ean, 16:30ean, neska alebinak Jakintzakoen kontra.

Futbola

Asteburuko emaitzak: Errejonak: Segura 1-0 Ostadar. **Jubenilak:** Segura 1-3 Koskas. **Kadeteak:** Trintxerpe 9-0 Aizkorri. **Infantilak:** Aizkorri 0-11 Zarautz.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Eibartarrak, zapatuan, 11:00etan.

Labur-labur

● **Zerbitzu berriak liburutegian.** Interneta erabili ahal izango da, astelehenetik ostegunera, 15:00etatik 19:00etara. KZgunea ere bertan eskainiko da, ostiraletan, 16:00etatik 18:00etara.

● **'Idatzia'** liburuxka etxez

etxe banatu du Udalak, euskara idatziaren inguruan sortu izan diren zalantzak argitzen laguntzeko.

● **Errastiolatzatik munduari begira** argazki erakusketa Elorripen. Egilea: Rafael Berasategi.

● **Herri Eskolaren kultur astea.** Otsailaren 16tik 22ra.

● **Inauterietako hartzaeren etorrera.** Otsailaren 20an.

● **IV. Lore eta landare azoka.** Martxoaren 21ean. Lehen bilera atzo burutu zen.

● **IX. Iparra-Hegoa.** Martxoaren 22tik 28ra. Araba lurraldeari eskainia.

● **Txalaparta ikastaroa.** 20 lagun apuntatu dira. Horietaatik 15 segurarrak. Talde bat bertan sortzeko aukera izango da.

● **Ikastaro berriak.** Udala- ren inizatibaz, alde batetik 'Yoga tradizionala' eta bestetik 'Saloiko dantzak' eskainiko dira. Izena emateko epea urtarrilaren 31 arte. Informazioa udaletxean (943801006).

● **Atsedeneko karta txapelketak.** Brixkan, puntuan eta musean bostna bikotek eman dute izena, tutean, berriz seik. Aste honetan hasi dira norgegiagokak eta otsailaren amaiera aldera, finalak.

Joseba Telleria



Ekitaldi politikoa

'Españiari ez. Euskal Herria aitortu-errespetatu' lelopean ekitaldi politikoa burutu zuen Segurako ezker abertzaleak urtarrilaren 24an plazan. Txalapartari eta abeslariak gain, idatzi politiko bat irakurri zen eta mokadutxoan parte hartu zuten.

Firma bilketa: Otsailaren 1ean, 12:00etatik 14:00etara plazan. Nazoi Batuen Erakundera 25.000 sinadura bidali nahi dira, espainiar estatuaren jarrera salatzen.

Balantzeak zenbait arlotan

Aurreko alean 2003ko biztanleriari zegozkion datuak eman bagenituen, oraingoan beste arlo batzutako balantzeak eginez jarraitzeko azokei, eguraldiari eta automobil parkeari lotuko gataizkie, besteak beste, zer interesgarri eskaini duten azalduz.

Azoka denboraldia

Iaz baino apalxeagoa izan da azkeneko azoka garaia herriko nekazariarentzat, bai sariei dagokienez behintzat. Izan ere, lehortearen eragineko urritasunagatik baserriar askok euren produktuak kalera tu gabe etsi behar izan dute, ekoizleen kopurua nabarmen murriztuz, eta azken balantzerako etekin gutxiago sortzea ekarri du horrek. Bekoetxe eta Agerreberri baserrietan, hala eta guztiz ere, iazko markari eutsi ezezik altxa ere egin dute, barazki eta frutetan potentzia garrantzitsu direla frogatuz.

Gure mugez haraindi, Baztarrikako gaztak ere izan du kanpoan onespenera. Apirilean, esate baterako, Madrilgo 'Gourmet de Quesos' lehiaketan finalean sartzea lortu zuten, estatuko bazter guztietako gazta ezagunen tartean lekua eginez.

Laburbiltzeko laukian jarri ditugu sariak, ereindako lanarekin herriarrek azoketan bildu duten uztaren ispilua izan daitezkeelakoan.

2003ko eguraldia

Gabino Muruarengana jo dugu iazko urteko eguraldiaren zenbait xehetasun hona ekartzeko, datuak bildu eta jasotzeko afizioa baitu etxean jarritako estazio meteorologikotxiki baten bidez.

Egun hotzenak otsailean izan ziren, zerotik behera lau egunetan jaitsi baitzen termometroa. Otsailaren 18an hartu zuen Gabinok minimoa, 6 gradu zeropetik; izotz beltza deritzana egin zuen orduan. Udaberri atarian, martxoaren 18an, zeroz beheko 2 graduek hormatu zuten, baita ere. Elurak ere presentzia izan zuen. Lehendabiziko lapatxa Murgil aldean urtarilaren 10ean bota bazuen ere, hilaren 31n jardun zuen gogotik egun osoan: goizeko 11etan hasi eta gauerako 23 zentimetroko estalkia zegoen.

Haize desberdinekin elurra egiten badakiela garbi jasotzen du Gabino Muruak. Frantzi-iparrarekin (ipar-ekialdeko haizea) otsailaren 15ean zerbait erori zen, zuritu gabe, eta handik lau egunera hegoeko haizearekin itsastera iritsi zen. Azkeneko zuritasuna azaroaren 26an ikusi ahal izan zen Aztirin.

Bestalde, bero handiak ere jasan behar izan genituen uda partean. Gradutan gorenak abuztuaren 3 eta 4a suertatu ziren, 40-41 graduko saparekin. Abuztuaren 12ra bitarte

Etxea	Sariak			Denera
	1.	2.	3.	
Bekoetxe	7	6	6	19
Agerreberri		5	3	8
Landeta	2			2
Izar Haundi			2	2
Oñatibi Txiki		1		1
Guztira	9	12	11	32

Santa Ageda eskea

Balantzategi herri eskolako ikasle-irakasleak datorren otsailaren 4an, Santa Ageda bezperako asteazkena, herriko kaskoan irtengo dira kopla kantari. Iazko huts egitearen "zorria" kitatzeko hasieran Orbeldirako plana bazuten ere, haur txikienei eragiten dien nekea arintzearen herriguneko etxeak soilik bositutuko dituzte goizean zehar.

KZgunea otsailean

Otsailean goizez egongo da KZgunea martxan, 9etatik 13etara. Ikastaroei dagokienez bi daude iragarrita, hasi nahi dutenentzat 20 ordukoa hilaren 10etik 25era, eta helduenentzako Nagusiweb 10 orduko kurtsoa otsailaren 2tik 9ra. Herriarrek bertara hurbildu eta parte har dezaten animatu nahi dituzte arduradunek.

Labur-labur

- Aurreko alean adierazitakoez gain, eta akats baten erruz izendatu ez genuen arren, iazko urteak beste mutiko bat ekarri zuen herrian. Patxi Ormazabal Galdos urriaren 11n jaio zen.
- Makilari aldizkariaren osaketarako bilkura otsailaren 13an egingo da, ostirala, arratsaldeko 7etan udaletxean. Zer edo zer idatzi nahi dutenek ordurako eraman behar dituzte lanak.
- Osinalde elkarteak otsailaren 14an egingo du urteko batzar orokorra, arratseko 8,30etan hasita.

Aimar Maiz

kiskali zituen bazterrak bero izugarriak, aire lehorrarekin. Aspaldiko partez San Roke bazkalondoan trumoiko euri zaparrada lehertu zen, metroko 19 litro botaz denbora gutxian.

Azkenik, euri-litroek adierazten dutenez denetik eman zuen 2003ak. Hilabeterik euritsuena urria geratu zen, 160 litro isurita. Zaparradarik mardulena urriaren 12an bota zuen; ordu eta laurdenean 34 litro bildu ziren. Gaijontzean, ur kantitatean oparoenak urtarilaren 28 eta 29 (105 litro), otsailaren 3 eta 4 (80 litro) eta maiatzaren 5,6, eta 7 (86 litro) egunak seinala daitetzeke. Idorrenetan, alderantziz, apirilak 20 litro eskas utzi zituen hil osoan, eta abuztuak 45 litro.

Ibilgailuen parkea

Ibilgailu mota desberdinen errolda eramaten da udalean. Hori horrela, ia-ia gabiriar

bakoitzeko gaur egun ibilgailu bat badela adierazten du datuak, guztira 397 automobilek osatzen baitute herriko motordunen parkea. Honela banatzen dira klaseka: turismoak 294, kamioiak 26, traktoreak 24, atoi edo erremolkeak 21, eta motorrak 32 (horietatik 19 ziklomotorrak).

Herriko errepideek hartzen duten trafikoaren intentsitatea ere kontrolatua dago, aldundiak ibilgailuak kontatzeko bidean aldenik alde jartzen dituen hari berezi batzuen bidez. Hiru puntutan aldi berean egin zen azkeneko neurketa, eta eguneko pasoen batzabestekoa adierazten du:

GI-3381 errepidea (Kortzuazpi parean): 331 paso eguneko.

GI-4381 (Astiasaran parean, goiko bidetik): 222.

GI-3520 (Aztiri-Zerain, minatako bidegurutzean): 269.

Euskara biziberritzeko plana aurrera

Lau urteko lehen ziklo bat amaitu eta baloratu ondoren, 2004-2007ko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia aurkeztuko da datorren otsailaren 4an, jendaurrean. Orain arte egindako lanaren jarraipena izango da eta orain arte jorratu gabeko esparruetara ere iritsi nahiko da.

Euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea du xede nagusitzat EBPN-k. Era berean, Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areago-

tzea.

Hiru sail nagusitan banatuko da datozen lau urteetan egin beharrekoa: euskara ondorengoetaratzea, non irakas-kuntza, helduen euskalduntze eta alfabetatzea eta familia izango diren esparru nagusiak, erabilera, non administrazioa, informazioa eta komunikazioen teknologia berriak, enpresa mundua, aisia, kirola eta erlijioa izango diren eragiteko esparruak eta azkenik, corpus edota elikadura, non euskararen kalitatea, liburugintza, publizitatea, kulturagintza eta hedabideetan aritu beharko den.

Aitor Calvillo




'Eraso gehiagorik ez!'

Estatu Espainiar eta Frantsesaren eskutik Ordiziako herritarrek azken hamarkadetan jasandako eraso "lazgarriak" salatu zituzten joaneko larunbatean, hilak 24 Ordiziako Enparantza Nagusian. Ekitaldian Ordiziako preso eta iheslari ohi, intsumiso, torturatu, zinegotzi lapurtu, hainbat isundun, herri elkarte ilegalizatuen partaide, Euskaldunon Egunkaria, Egin eta Ardi Beltzako langileek hartu zuten parte. Bertan bildutakoek Euskal Herritarren herri eskubideak aitortu eta errespetatu daitezen borrokan jarraitzeko konpromisoa hartu zuten.

Plan estrategikoa aurkeztu da

Datozen urteetan Ordiziako erronka nagusiak zeintzuk izango diren jakin nahi baduzu erakusketa ikusgai izango duzu Barrena Kultur Etxean. Joaneko asteartean Ordiziako Plan Estrategikoa-ren diagnostiko fasearen aurkezpena egin zen eta orain, otsailaren 3an aipatu planaren proposamen faseari dagokion aurkezpen publikoa egingo da.



Erakusketan ondorio nagusiak eta datozen urteetarako Ordiziak dituen erronka estrategikoak erakutsiko dira panel informatiboen bidez. Otsailaren 27a arte izango da ikusgai.

Apellaniz botata

Etxe berriak eraikitzeko helburuarekin, aspaldian itxita zegoen Apellaniz lantegia bota zuten aurreko astean. Itxi zenetik Udalak erabili du biltegi gisa.

Kantu eskean

Santa Ageda eguna bertan dugula eta eskean ateratzekoak dira hainbat herritar. Irriki Kultur Elkartek entseguak antolatu ditu urtarrilak 23 eta 30erako (19:30ean Barrenan) eta Santa Agedako kopia zaharrak ikasi eta ondoren otsailaren 4an herriko kaleetan barna kantatzea izango da helburua. Nahi duen herritar oro gonbidatuta dago.

Haur poesia aretoa

Otsailean zehar zabalik izango da Barrenan haurrei zuzendutako poesia aretoa. Bertan, jolasen bitartez, poesiaren mundua erakutsi nahi da. "Baso" baten antza izango du aretoa, lau zuhaitzez osatua eta bakoitzean joko edota jolas desberdinak egin ahal izango dira. Erakusketaz gain saio didaktikoak ere izango dira lehen hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Juan Kruz Igarabidek poesia errezitaldia ere eskainiko du.

Kixketa zabalik

Abenduaz geroztik irikita dago berriro ere Sanperio Kalea 3an dagoen Kixket Taberna. Orain artean bezala pintxo eta otartekoak aukera bikaina izango da.

'Kutsidazu bidea, Ixabel'

Euskal Herriari bira eman dion antzerki lan hau ikusgai izango dugu berriro ere Herri Antzokian. Antzerki garaia barruan txertatuta doa oraingoan ikuskizuna eta berau otsailaren 13an izango da. Bi saio izango dira gainera, bata 20:00etan eta bigarrena 22:15ean. Sarrerak salgai daude jada Barrena kultur etxean 10 euroren truke.



'Zerain dantza zain'

Erromeria otsailaren 1ean

Lelo hau darama, era zaharreko erromeriak berreskuratutako edo berrezarri nahian Zeraingo Udalak eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartek sorturiko ekimenak. Ekimen honetan, dantzarako ohitura zaharra berreskuratutako nahi da eta era zaharreko erromerien ohiturari nolabait jarraitu. Azken helburua, trikitixa eta dantza lotzen dituen erromeria herrikoia urte guztian zehar Zeraingo herrian sustatzea da.

Horretarako, sartu berri garen urte honetan 9 erromeria antolatuta dira 9 hilabetetan zehar. Lehenengoa datorren otsailaren 1ean izango da. Hau aurkezpen gisakoa izan-

go da eta gero urte guztian zehar arituko diren trikitixariak izango dira bertan: Kolondo eta Arantxa Iparragirre, Alaitz Telletxea, Xabier Arakama, Amaia Zubeldia, Daniel Oiarbide eta Ruth goierritarrak besteak beste. Dantza irakasle-sustatzaile lanean Patxi Perez arituko da.

Lehenengo erromeria otsailaren 1ean, igandea, arratsaldeko 6etatik 8etara izango da. Bertara etortzeko gonbita egiten die Udalak goierritar guztiei. Beren esanetan, euskal ohituren ondarea etorkizun ere izan liteke-lako.

Ion Muñoa

Zeraindarrak txapeldun Gipuzkoako Taldekako Bola txapelketan

Zeraingo taldea izan da txapeldun aurtengo Gipuzkoako taldekako Bola txapelketan. Gabirian eta Herreran bota ondoren 536 birlarekin lehenengo gelditu da. Ondotik aldameneko herriko segurarrak izan dira 509 birlarekin. Hauen ondoren gelditu dira Urnieta, Ategorrieta eta Legazpi besteak beste.

Joan Mari Iztueta eta Raimundo Intxausti tuteko txapeldunak

Urtarrilaren 17an jokatu zen Liztormendi elkarteko tute txapelketan Joan Mari Iztueta eta Raimundo Intxausti izan ziren irabazleak bigarren urtez jarraian. Beren esanetan zortea ere lagun izan bazuten ere, beste 15 bikoteen aurretik gelditu ziren.

San Blas eguna

Otsailaren 3an, San Blas egunean, ohitura den bezala, San Blaseko ermitan meza izango da arratseko 6,30etan. Bertan jakitoki eta kandelen bedeinkatzea egingo da. Ondoren, merienda ederra izango da Liztormendi elkartean Udaletxearen eskutik.

Santa Ageda bezperako eskea

Otsailaren 4an, Santa Ageda bezpera denez herriko talde bat etxetik etxe ibiliko da kantuan eta eskean usadio zaharrari eutsiz. Kantuan irtetzeko entsegua urtarrilaren 30ean, ostirala, iluntzeko 8,30etan egingo da Elizan, koruko entsaioekin batera. Eskearen ondoren egin ohi den afaria aurtan Olatza sagardotegian izango da.

Bolatokiaren inaugurazioa

Aurreko urtea bukatzerako auzolanean teitlatua eman zitzaion bolatoki berriari. Ondoren txukuntzen eta ondo jartzen ere makina bat lan egin du jendeak. Beronen inaugurazioa datorren otsailaren 1ean, igandean, egingo da. Goizeko 11:30etan hasita herriko bolariak eta nahi duten herritar denek bola tiraldia egingo dute. Ondoren, Liztormendi elkartean, auzolanean ari-tu ziren denentzat bazkaria izango da 14:30etan. Festa boro-biltzeko arratsaldean erromeria izango da.

Ostatua berriz irekita

Ostatua berriz irekiko dute datorren otsailaren 6an. Inaugurazioa arratsaldeko 7etan izango da. Arduradun berriak lanerako gogoarekin etorri dira, Martin Irazustabarrena, emazte Maribi eta hiru semeak. Ostata denbora dezentez itxita egon ondoren berririkiko dute. Ostata txukuntze eta hobetze aldera obra asko egin dituzte bertan eta besteak beste komun berriak dira lan horien artean aipagarrienak.

Mus txapelketa urtarrilaren 31n

Urtarrilaren 31n, larunbata, Liztormendi elkarteko mus txapelketa jokatu da. Izen ematea arratsaldeko 4etatik 4,30etara egin behar da. Txapelketa 4,30etan hasiko da eta sari bikainak izango dira. Irabazleentzat txapelak eta finalaurrekora iristen diren lau bikoteentzat afariak izango dira.

Eski irteera Baqueira Beretara

Otsailaren 14 eta 15ean eski irteera egingo da Baqueira Beretara kultur etxeak antolatuta. 150 euro kostako da bidaia (autobusa, ostata, afaria, gosaria, forfait-ak eta bidaia aseguruak). Plazak mugatuak direnez ahalik eta azkarren izena ematea komeni da. Informazio gehiagorako edo izena emateko Mandioa dendara jo dezakezue (telefonoa: 943801505).



Pedro Jose Lan-
da Gutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

* Depresioak

* Harremanetarako
arazoak

* Beldurrak

* Antsiak

* Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe

943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

Autowag, s.a.



943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepeidea, 419 Km

BEASAIN



Orkatz abesbatzaren 2004ko egitasmoa

Pasa den larunbatean, Orkatz Abesbatzak bere urteko batzar orokorra ospatu zuen. Bertan, 2003ko Kudeaketa-aren onarpenaz gain, 2004rako egitasmoa eta aurrekontua onartu zituzten. Era berean Gida Batzorderako bi kide aukeratu zituzten Ainitze Azurmendi eta Arantza Otaegi ordezkatzeko. Bi kide berri hauek Urko Agirre eta Luis Otaegi izan ziren.

2004rako egitasmo nagusienak aipatzerako orduan, Orkatz Abesbatzeko kideek batetik, Sant Sadurni d'Anoiako abesbatzarekin egingo duten elkartrukea azpimarratu nahi izan dute. Elkaraldatze hau lehen aldiz orain 15 urte egin zuten bi abesbatzek, eta garai aproposa dela iritzirik etenik izan ez duen harremanari indartu bat eman nahi diote. Honetarako Orkatz Abesbatzak aurreko aldietan parte hartu zuten kideei jakinarazi nahi die, elkaraldatze honetan lekua izango dutela, izan ere bi abesbatzeta-ko kide ohiek parte hartzea aurrikusten baita, bai ekaine-

an Zegaman eta baita urrian Sant Sadurni d'Anoian ere. Egitasmo erakargarri honen berri denbora gutxi barru zehaztasun gehiagorekin izango dutela Orkatzkide ohiek azpimarratu nahi izan dute Orkatz Abesbatzekoek.

Beste ekintza nagusia, XX. Eguberri Jaialdia izango dela jakinarazi dute, urtemugak merezi duela usteta.

Tartean, badira bai beste hainbat ekintza erakargarri ere, izan ere, Zuzendaria eta bi abeskide ezkonduko baitira aurtengo udaberri eta udaran. Ahaztu gabe Orkatz Txiki izango duen protagonismoa aurtengo urtean, Avilesen, Udaberriko Haur Abesbatzen Jaialdian, eta zehazteko dauden beste proiektu batzuetan.

Hasi berri den urte berri hau oparoa izango delakoan, eta sekula ez dagoenez soberan, Orkatz Abesbatzatik gonbitea luzatu nahi zaie abestea gustuko duten herri-tar guztiei denon abesbatza denaren ateak parez pare irekita daudela gogoraraziz.

Sinfo Alzola eta Arantxa Kerejetak urrezko ezteiak ospatuko dituzte



Datorren urtarrilaren 31n, larunbata, Sinfo Alzola eta Arantxa Kerejetak Urrezko Ezteiak ospatuko dituzte. Horretarako, Zegamako Gurutze Santuko ermitan meza izango dute eguerdiko 12:00etan eta ondoren Gaintzako Kale Txiki jatetxean, famili giroan, bazkari eder bat eginez borobilduko dute, eguna. Bikote hau 1954ko urtarrilaren 30ean ezkondu zen.

Otsaileko egitaraua

Otsailak 4, asteazkena Santa Ageda Bezpera. Arratsaldeko 2,30etan Aitxuri Herri Eskolako haurrak irtengo dira kantari herri erdigunean zehar, eta arratsaldeko 6,30etan gazte nahiz heldu zine ondotik aterako dira Santa Ageda eskera. Kultur Etxetik gonbidapena luzatzen zaizue bertan parte hartzeko.

Otsailak 8, Kultur Etxean, arratsaldeko 5etan 'La película de Stitch!' izango dugu ikusgai igandetako bideo emanaldiaren barnean.

Otsailak 11, asteazkena Lourdesko Amabirjinaren Eguna dela eta, meza ospatuko da Jubilatutako Elkartearen arratsaldeko 5,30etan. Meza ondoren txokolate jana izango da bertaratu guztientzat.

Otsailak 12, osteguna, arratsaldeko 7,30etan hitzaldia Olarango Gizarte Zentruan. Gaia: 'Bilobak zaintzen dituztenentzako osasun informazioa' eta hizlaria, Miren Saldaña.

Otsailak 20, ostirala Inauteri jaia. Arratsaldeko 2,30etan, Aitxuri Herri Eskolako haurren irteera mozorroturik, eta 4etan Txokolate jatea Guraso Elkartearen eskutik.

Aitzgorri Futbol Taldearen partiduak: Kadeteak 1.maila: Otsailak 1: Aitzgorri F.K. - Eibartarrak. Otsailak 8: Sporting Herrera - Aitzgorri F.K.

Zuhaitz eta zuhaiskak baserri eremuan

Urtarrilaren 27an, Kultur Etxean hitzaldia izan zen 'Zuhaitz eta zuhaiskak baserri eremuan' gaiari buruz. Hitzaldian, Goimen Elkarteak argitaratu duen 'Zuhaitz eta zuhaiskak baserri eremuan' liburuaren aurkezpena egin zen eta bertan jasotzen diren landareen erabileraren berri

eman nahi da, Goimenek dirulaguntzak jarri baititu hainbat landaketa bultzatzeko.

Ur moztea

Gipuzkoako ur Kontsortzio-tik jakinarazi zaigunez, datorren asteazkenean, goizeko 9etatik aurrera uraren hornidura moztuko da sare nagusian konponketak egiteko.

Edurne Albizu

Bilkoin Elkartearen eguna

Joan den igandean, hilak 25, izan zen Bilkoin K.K.E-ren eguna, lehenagotik ospakizunetan hasi ziren arren. Toka txapelketa eta Tximist mus txapelketa egin baitziren bezperan.

Toka txapelketako hirugarren postuan Juanito Gaztañaga geratu zen. Bigarren, berriz, Manuel Moron, eta irabazlea Bixente Esnal izan zen.

Tximist mus txapelketako lehen hiru bikoteak aita-semeak izan ziren. Hirugarren, Joxe Antonio eta Joseba Artola, bigarren, Javier eta Inko Mujika, eta lehenengo, Julian eta Urko Urtaza.

Igandean, berriz, eguerdiko 12etan urteko batzar orokorra egin zen. Hemen, lehendakari berriaren hautaketa

egin zen, besteak beste. Berriro ere, Joxe Mari Etxeberria aukeratu zuten bazkideek, 41 botu lortu zituelarik.

Ondoren, 14:30etan, bazkideen bazkaria izan zen, honako menuarekin: urdaiazpikoa, entsalada ganba eta babekin, langostinoak, legatza, entrekota, etxeko kopa, txanpaina eta kafea.

Labur-labur

● **Santa Ageda bezperan**, asteazkena, goizeko 11,30etan irtengo dira Ugao Herri Ikastetxeko haurrak herriko kaleak alaitzera. Ea eguraldia lagun izaten duten.

● **Aurtengo Festetako mo-zorroaren gaia** aukeratzeko bi bilera egin dira. Hurrengo alean izango duzue erabakitakoaren berri.



Euskal preso eta iheslarien alde lanean

Legorretako Amnistiaren Aldeko mugimenduak gabonetan antolaturiko ekintzetan parte hartu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie. Eguberri bezperan, adibidez, 1214 euro bildu ziren Euskal Presoen Elkartasunean.

Bestalde, urte guztian zehar egingo diren ekintzetan ere parte hartzeko gonbidapena luzatzen da, "guztion partehartzea beharrezkoa delako Euskal Preso eta Iheslariak Herri-
ra ekartzeko".

Jakinarazi nahi da, baita ere, errifaren zenbaki saritua 459 izan dela.

● **Sukaldeko olio birziklatzeko** aukera otsailaren 10ean izango da herriko plazan.

● Gogoratu, aurreko alean esan bezala, otsailaren 8an, larunbata, **Talo Festa** izango dela.

Zelai Amenabarro

Mus txapelketa

Otsailaren 7an jokatu da herriko Aitz-buru elkartearen urtero egiten den mus txapelketa. Arratsaldeko 4etatik aurrera jokatu da eta egun berean eman beharko da izena. Jokatzeko baldintza bakarra bikoteko partaide bat mutilo-
arra edo elkartekoa izatea da. Txapelketaren ondoren afaria egingo da.

Santa Ageda bezperako kantuak

Euskal Herriko aspaldiko ohiturari eutsi asmoz, otsailaren 4an gazte talde bat baserri ibiliko da Santa Ageda eskean. Egun horretan bildutako dirua San Pedro jaiak antolatzeko erabiliko da.

Traste zaharren bilketa

Otsailaren eta martxoaren etxeko traste zaharrak biltzeko egunak otsailaren 11 eta martxoaren 10a izango dira hurrenez hurren.

Jaiotza

Urtarrilaren 20an jaio zen Enetarriaga etxeko Fermin eta Estitxuren semea, Egoitz Olaetxea Urkia. Zorionak!

Iñaki Ugalde



Kultur aste arrakastatsua

Gabon garaiari sarrera ona eman nahi geniola eta kultur astea antolatzea erabaki zen abenduaren 15etik 19ra. Helburua herritarrak elkartzea eta hitz jardun bat egitea zen. Egia esan behar bada, benetan harrera ederra egin zion

jendeak. Lehenik eta behin Peio Añorga ipuin kontalaria izan zen, ondoren Jakoba Errekondo, gero Txan magoa eta azkenik Marron.

Umeek gustura ikusi zituzten ipuin kontalariaren eta txan magoaren ekitaldiak,

KZ gunearen zabalik

Abenduaren hasieratik irekiak dira Aramako KZ guneko atetak. Berau, udaletxean kokaturik dago eta bertako ordutegia 9:00etaik 13:00etara izaten da. Informazioa jaso nahi izanez gero edo beste edozertarako, deitu 943881915 telefonora, edo udaletxeko telefonora bestela.

KZ gunean, interneten nabigatu eta herritarren beharrei egokitutako interneteko ikastaroa egin daitezke. Hau guztia doainekoa da eta oso ordutegi malgua dauka.

Sukaldaritza ikastaroa

Otsailaren 14an hasi eta larunbatero-larunbatero, martxoaren 20 arte sukaldari ikastaroa izango da. Goizeko 10,30ak aldera hasi eta 12,30ak inguru arte, herriko soziedadean.

Aldez aurretik, orde, sukaldariarekin eta herritarrekin batera antolatu nahi da, horregatik otsailaren 7an larunbata, goizeko 1,30etan soziedadera agertu dadila ikastaroan parte hartu behar duen guztia.

baita hainbat helduk ere (han egon ginen guztiok begiak txabal-txabal eta belarriak adi-adi jarririk).

Jakoba Errekondoren informazioa ere garrantzitsua izan zen, jende helduak gus-tora entzun zuen hark esandakoa.

Eta azkenik, Marronen diaporama, ederra benetan hegan egitearen amets hori. Gure ingurunea beste modu batera ezagutzeko aukera izan daiteke parapentearen istorio zirraragarri hau. Beraz badakizue, kontua probatzea omen da.

Damian Olanori agurra

Urtarrilaren 16an hil zen Damian Agirre Urdangarin, 81 urte zituela. Patxi Iraola bertsolariak, Damiani agur bertsoak idatzi nahi izan dizkio, hileta egunean kantatzerik izan ez zuenez.

Horra Damian ordaindu dezu jaiotzaren ondorena irtsi zaizu horretarako ordua edo oreña bienbitartean bete ondoren gizon zintzoen ordena utzi diguzu bertso ta histori betirako oroimena zauden tokitik hartu zaidazu eskerrik bihotzkorrena.

Hainbat tertuli egin ginduzten jatorrak eta goxoak eta hitzbide gure herrian histori edo bertsoak oso eleiztar zintzoa zinan etxean e(re) errezoak San Pedrok libre utzi deizula zeru bateko pasoak gozamenean hartu zaitzala betikotasun osoak.

'Gazteen esku dago etorkizuna'

Ataungo 16-24 urte bitarteko gazteok aurreko astean galde-sorta berezi bat aurkitu dugu etxeko postontzietan. Herriko talde baten ekimena da, 'Gurea den/k etorkizune, hartu hitze ta erabakie!' lemapean, Ataundar gazteen perfila nolakoa den aztertu nahi dute. Horretarako herriko gazteen gustu eta nahiak baloratuko dituen galdesorta igorri digute. Etorkizuna eraikitzen has-teko, ezinbestekoa da herriko gazteen gustu eta nahien berri izatea. Hori horrela, gazte guztioi deialdia luzatzen di-gute, galdesorta zentzuz bete eta otsailaren 29 bitartean, Oargi, Peione, Sutegi eta Troskaeta tabernetako bu-zoian botatzeko. Baten batek inkesta jaso ez badu eta bete nahiko balu, aipatu taberne-tan aukera izango du.

Traste zaharren bilketa

Joan den urtarrilaren 21ean hasita, otsailaren 4 eta 18an eta martxoaren 3 eta 17an al-tzari, tresna elektriko eta ba-

liorik gabeko traste zaharren bilketa egingo da gure he-rrian. Horretarako, bezperan eta iluntzeko 8etatik aurrera atera behar dira traste zaha-rrak. Trasteak zein puntutan utzi behar diren adierazteko, Fomento de Construcciones y Contratas S.A. enpresara dei-tu behar da, 943-161590 tele-fonora.

Goierri Telbebista

Goierri telebistakoek jakitera eman dutenez, Usurbe repeti-doretik zuzenean seinalea hartzen duten etxeetan Goie-rri Telebista, UHF 39. kanale-tik ikus daiteke.

Atsedeen toki

Urtarrilaren 9ko ebazpenaren bidez, alkateak Atsedeen Toki-ko tabernaren ustiapena lehiaketa bitartez izendatzeko baldintza plegua onartu eta lehiaketarako deialdia egitea erabaki zuen. Deialdia 2004ko urtarrilaren 15ean Gi-puzkoako Aldizkari Ofiziale-



S.O.S. Sahara

Urtarrilaren 22 eta 23an Saharako Euskadiko delegazioaren eskariz, Ataungo Udalak hiru auzoetan janari bilketa antolatu du Saharako herriari laguntzeko. Herritar ugari izan dira ja-nariak ekarri dituztenak, beraz, elkartasun ekintza honek erantzun ona izan duela esan behar dugu.

Idatzi honen bidez, Mohamed Salem Embarek-ek, Frente Polisarioak Euskadin duen delegazioko ordezkariak eskerrak eman nahi dizkie Ataungo Udalari eta laguntza eman duten herritarrei agertu duten eskuzabaltasunagaitik.

Dolza Barandiaran

an argitaratu da eta ondorioz eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 4an amaituko da.

Interesa duen guztiak bal-dintza plegua Udaletxeko idazkaritzan jaso dezake.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

GERTU aholkularitza



txekin

ENPRESA BERRIAK SORTZEKO
DOHAINEKO AHOALKULARITZA
ETA SUBENTZIOAK

BEASAIN

gertu.asesoria@terra.es
www.gertuasesores.com

Kale Nagusia, 2
Telf: 943 16 21 92
Faxa: 943 88 36 33



Pottoka
KAFETEGIA

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

● Pintxo hotz
eta beroak

● Ogirtartekoak

Aldaizeren lehen alea kalean

Idiazabalgo Illati Euskara elkartek bultzatutako Aldaize Herri aldizkariaren lehen alea Sanblasetan aurkeztuko dute. Urtarrilaren 30ean, arratsaldeko zortzietan izango da Euskara Elkartearen eta aldizkariaren aurkezpena Pilarrenako ganbaran.

Aldizkari berriaren lehen-dabiziko alean, Idiazabalen sortu berri den, Kasongo Lunda Gobernu Kanpoko Erakundeari buruzko erreportajea, Rikardo Telleriari egindako elkarrizketa eta krosaren antolaketari buruzko kronika daude, besteak beste. Sukaldeak, sendabelarrek eta garai bateko kontuek ere izango dute tarte.



Aldizkaria doan banatuko da herriko buzoietan eta bi hilabetero argitaratuko dute.

Xabier Urteaga

Etxebizitza berriak

Azken hilabeteetan etxebizitza berrien eraikuntza gutxitu egin den arren, oraindik ere herrian eraikin berriak egiten ari dira. Urte honen bukaerarako edo datorrenaren hasierarako Udalak sustatutako etxeak egingo dituzte. Pilarrenea eta Arretxe elkar-tea dagoen eraikinaren artean egongo dira etxebizitza berriak.

Errekalde inguruan, Jaurilaritzak bultzatuta egin behar dituzten babes ofizialeko etxebizitzak ikusteko gehiago itxaron beharko da. Etxebizitza Sailak jakinarazi du, lanak hemendik bi urtera hasiko direla.

Errekako lanak

Festak bukatutakoan hasiko dira plazatik Mabi artean erreka txukundu eta berritzeko obrak. Laster, Plazako zubia eta Toki Txokokoa bota egingo dituzte berriak egiteko. Lanak uda alderako bukatuta egotea espero dute. Ordura arte traba bat baino gehiago izango da herri gunean ibiltzeko.



Idiazabal-Orendain lehiaketa herri kirolean

Sanblasetako kirol ekitaldien artean, ikusmin handia sortu duen apustua ere ba da: Idiazabal eta Orendain, aurrez aurre herri kirolean. Bi herriak taldeek urtarilaren 31an dute zita Igarondo pilotalekuan. Apustua egiteko ideia, Orendaingo festetan sortu zen. Han, bertako bi taldeen arteko apustua egin zuten, eta idiazabaldar batzuk hura ikustera joan ziren. Orain Idiazabalen bizi den orendaindar batek, Mikel Garmendiak, bota zien erronka idiazabaldarrei: ezetz Sanblasetarako bi herrien arteko apustua prestatu. Idiazabaldarrek erronkari heldu zioten eta hala hasi ziren festeterako prestatzen. 11 lagunek taldeak osatuta daude, eta gauzak nola izaten diren, erronka bota zuen orendaindarra, Mikel, idiazabaldarren taldean airtuko da lehian, aizkoran hain zuzen ere.

Urrian hasi ziren entrenamenduak egiten. Gora beherak ere izan dira tartean, lesioak, entrenamenduetara joateko astirik ez, hala ere prest daude zitarako. Oreindango eta Idiazabalgo taldeek, ondoko frogei egin beharko diete aurre: Trontza, Koskolak, Txinga, Ingudea (20 jasoaldi), harria jasotzea (50 kilokoa 10 aldiz), zaku karroa (40 kilokoa) korrika (frontoiari 4 buelta) eta aizkora.

Kirolak

Aurreko asteburuan Zelaako kiroldegian aritzen diren taldeen emaitzak hauek dira:

Saskibaloia: mutil benjaminak, Idiazabal 20 - Laiotz 4; neska benjaminak San Benito 34 - Idiazabal 2; neska alebinak Lardizabal 14 - Idiazabal 18; neska infantilak jakintza 21 - Idiazabal 16.

Areto futbola: mutil kadeteak: Jesusen Bihotza 3 - Idiazabal 2; neska kadeteak Eskolapioak 1 - Idiazabal 0.

Esku pilota: Jakintza 7 - Idiazabal 2.



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI ☎ 943 88 94 82
BEASAIN

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 **ORDIZIA**



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**



*Urteari
hasera ona
emateko,
Goierriko
aurreneko
jaiak,
Sanblasak
ospatzera
gonbidatzen
zaituztegu
goierritar
guztioek.*




IDIAZABALGO UDALA

GARABI

San Blas jai zoriontsuak guztioi!



www.goerrritelebista.com



Goierri
Telebista

tel. 943 085477

erredakzioa@goerrritelebista.com

publizitatea@goerrritelebista.com

emititzen!
baita uhin bidez ere
sintonizat UHF 39



11
kanala

Ondo ikusteko arazorik baduzu, jarri harremanetan

Goierri Telebistarekin hitzarmena duen antenistaren batekin

AYESTARAN: 943 883866

AUZMENDI: 943 881324

ELECTRO ORIA: 943 160533

ALDANONDO GARAJEA

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran

☎ 943 18 72 57



MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Lide Larrañaga idiazabaldarra Gipuzkoako ziklo kros txapelduna

Abenduaren 28an, Itsasondon, Gipuzkoako ziklo kros txapelketa irabazi zuen Lide Larrañaga idiazabaldarrak. Ilusio handiz jaso zuen txapela.

Girona Costa Brava talde kataluniarrean dabil Lide Larrañaga idiazabaldarra. Bera da euskaldun bakarra. Ziklo kroseko denboraldia asteburu honetan bukatuko da eta atsedendalditxo baten ondoren, errepideko denboraldia hasiko da martxoan hasieran.

Ziklo kros denboraldia bukatuta, gustura dago idiazabaldarra. Gipuzkoako txapela lortu du eta ilusioz hartu du txapela. Dena den, Itsasondoko probaren ondoren, hainbat aldarrikapen egin zizkieten emakumezko txirrindulariek Federazioari, gutxieneko eskakizunak Lidek dioenez. "Mutil jubenilekin korritzen dugu, bi minutu lehenago ateratzen gara, baina sailkapen propiorik ez geneukan, lasterketa bakoitzean lortutako puntuekin osatutako sailkapen orokorrik ere ez, karrerarik irabazteagatik diru sarrierarik ere ez... Itsasondoko karreran, lehenengo emakumezkoari saririk ere ez zioten eman. Horrelako detaileak ikusi, guztiok elkartu eta eskakizun minimo horiek eskatzea erabaki genuen. Federa-



Zaletasuna txikitatik

Etetik datorkio zaletasuna Lideri. Osaba bat txirrindulari izan zen eta talde bateko zuzendaria ere bai. Aitak, Lide txiki-txikia zela eramaten omen zuen karreretara.

zioak zenbait puntu onartu ditu".

Kirol gogorra aukeratu du Lidek. Gogorra bi zentzutan: kirolaren beraren gogortasuna eta emakume izateagatik egin behar den borrokagatik. "Oso kirol lotua eta sufrtua da. Sakrifizioa eskatzen du. Gustura hartu beharrekoa da bestela jai dago".

Errepidean ere ibiltzen da Lide. Ondo uztartzen ditu bi modalitateak. Iaz, Castellon-en, karrera bat irabazi zuen. Euskal Herrian, denboraldian, 6 bat karrera izaten dituzte eta Espainian, beste zazpi bat. "Gainontzean, mu-

til jubenilekin atera behar, geldirik ez egoteko. Ikasketek nahikoa lotuta edukitzen nauten eta uda aldean gehixeago entrenatzea daukat eta horixe aprobeztatzen dut", dio Lidek.

Biologia ikasketak egiten ari da eta astea Bilbon pasatzen du. Asteaz zehar Bilbo aldeko errepideetan entrenatzen du, Mungia aldean.

Zein ezaugarritako txirrindularia den galdetuta, zera erantzun digu Lidek: erloju kontrako motxetan nahikoa ondo moldatzen da, aldapagora ere bai. Hori bai, gorputzez txikia izanik, lautadetan

ez omen da hain ondo moldatzen, "errodatzaila ona ez naiz. Sprintetan ere ez".

Emakumezko izatearen gogortasuna

Txirrindularitza berez kirol gogorra bada ere, emakumezkoena oraindik ere gogorragoa da, Lidek berak aipatu digunez. "Emakumezko txirrindularitza ez dago baloratuta. Joane Somarribaren kasua hor dago. Daukan palmaresarekin negu guztian talderik izango ote duen kezkarekin egotea, oso gogorra da. Gizonetzko batek Joaneren palmaresa edukiko balu, bizia soluzionatuta izango luke. Joaneri esker, neskak txirrindularitzan ere bagabiltzala badaki jendeak. Beste alde batetik, ea neska gehiago ere animatzen den, gehiago izan da indar gehiago egingo baiden".

Italia aldean baldintza hobea ote dituzten galdetu diogu idiazabaldarrari. "Han ere gauzak ere ez daude oso ondo. Taldeak badaude baina diru aldetik arazoak dituzte. Soldadak kobratzeko ere bai. Urtean zehar neska asko taldez aldatzen dira. Itxuraz ideala ematen du baina benetan ez da hain polita. Hori bai, zerbait lortzekotan kanpora atera beharra daukagu", aitortu du.

o s k a r b i
o i n e t a k o a k



Tel. 943 88 41 04
kale Nagusia 34 BEASAIN
Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 25 ORDIZIA

Tel. eta Faxe:
943 886 558

Poltsikoko telefonoa:
616 698 288



Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

ZINEA

GOIENIZ:

Otsailak 5: 'Dolls',
Usurbe Antzokian,
21:00etan.

BEASAIN:

'Betizu, izar artean',
urtarrilak 31, Usurbe
Antzokian, 17:00etan.
Euskaraz.

'Papá Canguro', otsailak
7, Usurbe Antzokian,
17:00etan.

ORDIZIA:

'Todo lo demás'.
Urtarrilak 30: 22:15;
Urtarrilak 31: 19:30 -
22:15.
Otsailak 1: 19:30 - 22:15.
Otsailak 2: 19:30.

**'Looney Tunes, de nuevo
en acción'.**
Otsailak 1: 16:45.

GOIENIZ

'Dolls'

Takeshi Kitano
(Japonia, 2002)

Matusmoto eta Sawako bi-
kote zoriontsua ziren, baina
gurasoen presioak eta lortu-
tako arrakastak mutila era-
baki lazarri bat hartzera
bultzatu zuten. Orain Sawa-
ko deslari dabil, baina Ma-
tsumotori lotuta jarraitzen
du soka gorri luze batez.
Jendearen ustez, noraezean
dabiltza; haiek, ordean, ahaz-
tutako zerbaiten bila doaz,
lau urtaroko bidaian. Bes-
talde, Hioren istorioa du-
gu, Yakuza izandako agure-
arena. Azkenik, Haruna
ikusiko dugu itsasoai begi-
ra. Garai batean pop izarra
izan arren, istripu baten on-
dorioz bere aurpegi ederra
estalita darama. Gaur Na-
kui, bere jarraitzaile sutsua,
ikustera etorri zaio.

bertsoak

BEASAIN:

Otsailak 7, Amets Arzallus
eta Sustrai Colinarekin ber-
tso afaria Arrano Kultur El-
kartean, 20:30ean, Arrano
Kultur Elkartek eta Bertso-
aren Beasaingo Lagunak an-
tolaturik. Txartelak salgai
Arrano tabernan, 15 eurotan.

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Andoni Egaña,
Sebastian Lizaso eta Maialen
Lujanbio, 12:00etan, plazan.

musika

IDIAZABAL:

Urtarrilak 30, Joselu
Anaiak, goizaldera arte.

Urtarrilak 31, Txistulari
Alardea Zelaako kiroldagian,
20:00etan.

Urtarrilak 31, Diskofesta
Joseina Etxeberriarekin,
24:00etan.

Otsailak 1, Beti Argi banda-
ren kontzertua, 13:00etan.

Otsailak 1, 'Gladys Merca-
do y Mariachis Los Charros'
taldea, 23:00etan.

Otsailak 4, Joselu Anaiak,
18:30etik 21:00etara eta
23:00etik 01:00era.

pailazoak

BEASAIN:

Otsailak 5, Takolo, Pirritx
eta Porrotx, Usurbe Antzo-
kian, 16:00etan. Sarrera: 3
euro.

IDIAZABAL:

Otsailak 4, Takolo, Pirritx
eta Porrotx, 17:30ean, pilota-
lekuan.

dantza

ZERAIN:

Otsailak 1, Erromeria,
18:00etatik 20:00etara.

VOLVO



ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48 11
www.anzizar.com
BEASAIN

ZALBIDE

**TOLARE
SAGARDOTEGIA**

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76 **ABALTZISKETA**



3 BIFAMILIAR SALGAI ATAUNEN

Zubara Eraikuntzak S.L.
☎ 608 177 775

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Galtzagorri Elkateak eta Udal Liburutegiak antolatuta

'Poesia Aretoa' Ordizian

Otsailaren 2tik martxoaren 3ra bitartean, Poesia aretoa izango da Ordiziako Barrena Kultur etxean. Galtzagorri Elkarteak eta Ordiziako Udal Liburutegiak antolatu dute eta haurrei poesia gerturatzea da helburu nagusia. Juan Kruz Igerabideren poesia errezitaldia ere izango da erakusketaren osagarri.

Bisita didaktikoak egingo dituzte Ordiziako ikastetxeek. 6 egunetan zehar, lehen hezkuntzako 2., 3. eta 4. mailako ikasleek erakusketa ikusi ahal izango dute begirale baten gidaritzapean.

Erakusketak edo poesia aretoak baso baten itxura izango du. Lau zuhaitz izango dira eta berauek jolasaren gune garrantzitsu bihurtuko dira. Honela, zuhaitz bakoitzean jolas ezberdinak burutzeko tresna eta gai desberdinak aurkituko dituzte haurrek.

Besteak beste, jolasaren bidez, egitura poetikoak, poesia hizkuntza eta poesia ahoskamena landuko dira. Herri poesia, ahokorapiloak, dramatizazioak, kantak, igarkizunak... erabiliko dira helburuak lortzeko. Limerick eta haiku multzo bat ere bai.

Aretoan, aldi berean, zuhaitz bakoitzaren inguruan, poesia liburuak ikusi ahal izango dituzte. Azkenik, bisitaldiaren bukeran, ikastetxera erakusketan ezagutu dituzten poemak biltzen dituen Cd bat eramango dute koaderniloekin batera.

Tytti Thusbergen 'Modales' erakusketa Barrenan

Gaur bertan bukatuko da Tytti Thusberg diseinatzaile finlandiarren erakusketa Ordiziako Barrenan. Etxeko hondakinak erabiliz (jogurt tapen zilarrezko glamurra, patata poltsen sex-appeal gardenak), edo eta ospitaleko material birziklatuekin (benden zuritasuna emaztegaientzat, emakumeen gorputza kutsadura orotatik babesten duten ebakuntza maskarak), eguneroko bizitzaren berri ematen du, emakume ideal eta ezinezkoari barre eginez.

Etorkizuneko moda diseinatzaile berria hautatua izan ondoren, etxeko lau hormen artean bildu zen, bertatik moda industriaren ikuspegi kritiko bat aldarrikatzeko. Materialen eta eskulangintzaren tekniken behaketa abiapuntutzat hartuz, jantzi eta marken egiazko balioa zalantzan jartzen du, bere buruari hainbat galdera eginez, joan den urteko milaka jantzi eta modelo berrien desagerpen misterioaren inguruan.

Tytti Thusberg diseinatzailea 1969an jaio zen Mikkelin, Finlandian. Duela 7 urte Euskal Herrian bizi da. Modista, enpresaritzat eta ehunkizko jantzigintza ikasketak egin zituen. Moda-diseinatzaile titulu ofiziala dauka. Antzerki zein operako jantziei buruzko hainbat espezializazio-ikastarotan parte hartu du, baita modista edo diseinatzaile moduan hainbat ekoizpenetan ere. Bere artelanak, arte-areto, azoka eta moda-ibiltokietan jarri ditu erakusgai. Azkenaldian, adierazpen huts-hutsean artistikoari ekin dio eta modari buruzko ikuspegi kritikoarekin konbinatu du.

erakusketak

ORDIZIA:

BEASAIN

Otsailaren 2tik 27ra, 'Haur poesia' erakusketa, Barrenan.

Otsailaren 20ra arte, XII. Aterpe pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

Otsailaren 2tik 27ra, 'Haur poesia' erakusketa, Barrenan.

Otsailaren 20ra arte, XII. Aterpe pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Aterpe tabernan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta

(Nafarroa etorbidea, 39 - Beasain). 943 880587.

Urtarrilak 31- Otsailak 1: Jauregi

(Santa Maria, 2 - Ordizia). 943160949.

Otsailak 7-8: Azpilikueta

(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

IKASTEK AKADEMIA

Goierriko akademia integral bakarra. Hezkuntzako profesionalak zuzendua.

Joan Iturralde, 5 BEASAIN ☎ 943 160 120

www.ikastek.net

ESKOLA LAGUNTZA

- ✕ Gai eta maila guztiak
- ✕ Banakako atentzioa
- ✕ Talde txikiak

IKASKETA ARAZOAK

- ✕ Errendimendua
- ✕ Irakurritakoaren ulermena
- ✕ Idazmena
- ✕ Ohiturak

GOIERRI ESKOLA

- ✕ Unibertsitate-maila
- ✕ Batxilergoa
- ✕ Moduloak

HADI UNIBERTSITARIOAK!

Intentsiboak
Larunbatetan
Deitu informazioa eskatuz!

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➡ Zegamako erdigunean pisua salgai. Sukaldea, bainua, egongela, 3 logela eta trastalekua. 699846417.

➡ Etxebizitza salgai Legorretan. Sukaldea berritua. 943806566.

erosi

➡ Ormaiztegin pisua erosiko genioke partikular bati. 679298932.

➡ Zaldibian pisua erosiko genioke partikular bati. 630375147.

➡ Lazkaon pisua erosiko genioke partikular bati. Ekonomikoa. 616399300.

elkarbanatu

➡ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914595390.

errentan eman

➡ Nafarroan, Urbasa mendilerroaren eta Urderraren ondoan, etxea, bere aparkalekuarekin, alokatzen da asteburu, zubi eta abarretarako. 948539381.

➡ Ordizian pisua alokatzen da. 665756560 - 653011954.

Baserriak

salgai

➡ Baserria eta borda salgai Beasainmendin. 12 Hako lursailarekin. 943180263 - 943180280.

Lursailak

salgai

➡ Zegaman lursaila salgai, etxea egiteko eskubidearekin. 943582035. Iluntzetan deitu.

Garajeak

errentan eman

➡ Lazkaon, Jose Lasa kalean, lurrazpiko garajea alokatzen da. 21.00etatik aurrera deitu. 943885574.

➡ Beasaingo Garmendia Otaola 13an, garajea alokatzen da. 943027693.

Lokalak

errentan eman

➡ Ormaiztegin Citroen azpian, lokal industrialak alokatzen da. 87,5 m². Bulegoa, duxak eta komunak ditu. 943884768. Gaez deitu.

Negozioak

eskualdatzea

➡ Ordiziako erdigunean, taberna eskualdatzen edo traspasatzen da, jubilazioagatik. 943882883.

Animaliak

salgai

➡ Aharia salgai, gaztea eta ona. 943885102.

➡ 5 urteko setter ingles txakur arra salgai. Txuri-gorria, ehizean dakiena. Iluntzetan deitu. 943884207 (Jon).

Ibilgailuak

salgai

➡ Renault 19, diesela, salgai. 5 atekoa. SS-AM. Garajeon egondakoa. 626703606.

➡ Volkswagen Transporter 2.5 tdi salgai. 102 zaldi. Atzealdean ate bikoitza. Egoera onean. 9.000 euro. 670672584.

➡ Seat 600 autoa salgai. 615793937. Elena.

➡ Renault 5 GTL salgai. Merkea. ITV pasa berria. Iluntzetan deitu. 943887369.

➡ Volkswagen Carabelle furgoneta salgai. 2.4. diesela. 9 pertsonentzako. SS-AS matrikuladuna. Egoera onean. 627411808.



Abokatuak
Enpresen asesoria eta gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzan salmenta: Legorreta Beasain Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393

e.posta: zuzenki@euskalnet.net

Elosegi, 16 LAZKAO




Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

943 88 77 26

ALTZAGA

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Promozioa: auto ordua 12 euro

Aita Urdaneta

ORDIZIA

943 88 72 76



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

ZALDIBIA

Txindoki, 23 - 4. ezk.

Bestelakoak

opari

➡ Euskal aldizkariak oparitzen ditut: Goierri-tarra, Ostiela, Elkarri eta Jakin. 943450697.

salgai

➡ Bigarren eskuko konjeladorea salgai. Lau kajoi ditu. Altuera: 85 zm. Zabalera: 52 zm. Sakonera: 60 zm. 50 euro. 600362143.

➡ Arropa dendako al-tzariak salgai: mahaiak, ispilukak, bitrinak, mani-kiak... 600071852.

➡ Bi mountain bike salgai. Gutxi erabiliak. Bakoitzak 65 euro. 943085926 - 630420719.

➡ Karabana salgai. Abanzearekin, egoera onean, merkea. 619441919.

➡ Zanussi Built-in dti 6726 ontzigarbigailua salgai. Altuera: 83,5, zabalera: 60 eta luzera: 62. 180 euro, estreinatua gabe. 943884318.

➡ Egurrezko kamilla eta bulegoko altzariak salgai. 943889415.

➡ 200 kilo intxaur salgai. 943888651.

➡ LP zaharrak salgai. Los grandes composito-res, Eric Clapton, Neil Diamon... 652729563.

➡ Sehaska salgai. Egoera onean. 670422051.

➡ Zanussi garbigailu berria salgai. Estreinatua gabea. 615768977.

➡ Sukaldeko ekono-mika salgai. Berogailu gabea. 943161422.

Lana

eskaerak

➡ Baserri lanetarako langilea behar da. Kon-tratua egingo zaio. 943161244. Goimen.

➡ Beasainen, emaku-me bat behar da, goize-tan, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 943027962.

➡ Zerbitzaria behar da asteburuetarako. Eus-kalduna. Esperientzia-duna bada hobe. 943880044.

➡ Neska edo emaku-me bat behar da, goizetan, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. 659802645.

➡ Gida baimena duen langile bat behar da. 943801107 - 645713222. Joxe,

➡ Beasainen pertsona bat behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 608775188.

➡ Sukaldaria behar da Ordiziako taberna-jate-txe baterako. 687609093.

eskaintzak

➡ Delineatzaile mo-duan lan egingo nuke. Esperientziaduna. aranburanga@hotmail.com.

➡ Neska euskalduna eskaintzen da goizetan edozein lanetarako (haurrak zaindu, etxeko lanak egin, saltzaile, garbitzaile...). 607658507.

➡ Bi orduz lan egingo nuke. Emakumezko es-perientziaduna. Berdin da zein lanetan eta zein egunetan. 943889190.

➡ Enpresaritzan lizen-tziaturiko neska prest dago bere ikasketekin zerikusia duen lanpostu batean lan egiteko. 610369746.



AUZOKI

Komunitateen administrazioa

Kol. Zenb. 599
Urdaneta 52-behea. Ordizia.
Tel.: 943 087 486
635 703 671 / 635 702 570

- Jabekideen komunitatea osatzea
- Komunitateen kontabilitatea
- Akten idazketa
- Aurrekontuen eskaera
- Aholkularitza legala
- 24 orduko asistentzia
- e.a.

ALAZNE MANERO

sendagilea

Kol. zk.: 4658

RPS: 51/03

KIRURJIA PLASTIKOA

KONPONTZAILEA

ETA ESTETIKA

BELARRI BEREIZIAK, BETAZALETAN
POLTSAK, BULARRAK HANDITZEA
EDO TXIKITZEA,
FALDOI ABDOMINALAK,
GANTZ-PILAKETA LOKALIZATUAK,
ERREDURAK, ALDE BIGUNETAKO
TRAUMATISMOAK,
AZAL-LESIOAK (ULTZERAK,
KISTE SEBAZEOAK, NEVUS...)
KALTE ESTETIKOAREN BALORAZIOA



orain
zergatik ez?

QUIRÓN Klinika

ZUZENDU Zentroa

Alkolea parkea 7 20012 DONOSTIA Tel. 943 437 113

Labeaga 33D 20700 URRETXU Tel. 943 725 262



Idiazabalgo txistulari banda 1984ko otsailaren 3an

80. hamarkadako Idiazabalgo txistulari bandakoez badakite Sanblasetan lo asko egin gabe txistua hartu eta kalejira jotzea zer den. Lau txistuk, silboteak eta atabalak osatutako seikotea urteetan aritu zen jaiak alaitzen: kalejira egin, dantza txapelketari doinua jarri eta egitarauak eskatutako konpromiso guztiei aurre egiten. Gero taldea handitu egin zen, batzuk utzi egin zioten eta berriak ere iritsi ziren, hala ere batzuk oraindik eusten diote.

Ezkerretik eskuinera: Nazario Telleria, Lurdes Intxausti, Ana Isabel Alustiza, Mertxe Gerriko, Joxemiel Aldasoro eta Alberto Inza.

Giokela
Gure kalitatea

LUIS MARI HARATEGIA

Festa onak pasa!

Nagusia, 16 ☎ 943 18 72 37
IDIAZABAL

ARANTXA
LENTZERIA- MERTZERIA

UMEEN ERROPAK
Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 18 75 06
Bikuña Kalea, 1 IDIAZABAL

IZPAR

*Eskolako gaiak,
goxokiak, prentsa.*

Jai zoriontsuak!

☎ 943 18 72 19 IDIAZABAL

izal

IMAZ eta CONTRERAS

PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049 - 943 187 045
Ondramuño baserria IDIAZABAL



MUJIK

frutak - barazkiak

☎ 943 18 72 20 (biltegia) Plaza Nagusia, 6
☎ 943 18 77 14 (etxea) IDIAZABAL

KONTXI HARATEGIA
MIKEL JANARIDENDA

Festa onak pasa!

Nagusia, 14 ☎ 943 18 70 78 IDIAZABAL

BATZOKI
TABERNA

Kalamaretan espezialdua

Nagusia, 24 ☎ 943 18 71 25
IDIAZABAL




JASO EQUIPOS DE OBRAS Y CONSTRUCCIONES S.L.

Garabi garaiak eta eraikuntzaren
beharrizanei aplikatutako
teknologia modernoa
Plataforma igotzaileak
Karga-jasogailuak

- ✓ **Fabrikazioa**
- ✓ **Salmenta**
- ✓ **Alokatzea**



AENOR-ek
onarturiko
entrepresa
ISO 9.001




www.jaso.com - jaso@jaso.com

☎ 943 18 70 00 - Faxe: 943 18 70 20

N-1, 415 Kma. IDIAZABAL



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



AMPO S.COOP
IDIAZABAL Gipuzkoa



ALTZAIRU FUNDIZIOA

- Moldaturiko piezak.
- Zentrifugaturiko Tuboak.
 - * Aleatuak.
 - * Herdoiltezinak.
 - * Berogaitzak (Errefraktarioak).
 - * Nikel oinarritun aleazioak.

AENOR-ek onarturiko empresa ISO 9002

☎ 943 18 80 00 - Faxe: 943 18 81 30

BALBULAGINTZA

- AMPO Koperatibak balbulagintzarako duen Dibisioaren merkatal izena: POYAM da.
- Bertan, 2" diametro duten balbuletatik 48" arterainokoak egiten dira.
- Balbula hauek, Petrolio, Petrokimika, Energia, Alumina, Kimika Industrietarako eta Kriogenika Lantegietarako, Industri nahiz etxeetarako gas banatzaileentzat egiten dira.
- Honako etxe hauetaz homologatua: EXXON, TEXACO, AMOCO, CONOCO, DUPONT, B.P., REPSOL, ENA-GAS, GAS EUSKADI.

☎ 943 80 53 43 - Faxe: 943 88 88 47

ANTZIZAR

KIROLAREN UDAL ERAKONDEA



g a s t a e z a z u !

Antzizar kiroldegian eskeintzen dizugun PLUS kirol txartelarekin, gure instalakuntzak kixkaltzen jarriko dituzu. Kiroletako instalazio guztietara* sarrera doan eta kirol ikastaroetan prezio oso bereziak izango dituzu.



Aukera zabalena prezio bakarrean.

*SAUNA ETA FITNESS BARNE!



BEASAINGO UDALA

www.antzizar.net

tel. 943 887900